

ekobarometro soziala 2008



garapen iraunkorra
DESARROLLO SOSTENIBLE

EAE-KO HERRITARREK INGURUMENARI
BURUZ EGITEN DUTEN BALORAZIOA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

 **ingurumena.net**

*Gure esku dago
está en nuestras manos*

Ingurumen Estrategiaren
Agiria Saila 72. zk. 2008ko iraila

Eusko Jaurlaritzaren mendeko
Sozietate Publikoa

 **ihobe**

INGURUMEN ESPARRU-PROGRAMA SERIEA

Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak www.ihobe.net helbide elektronikoan ikus ditzakezu

- 51.zk. 2005ko maiatza «Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan (Ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean)»
- 52.zk. 2005ko uztaila «2004ko Industria Ekobarometroa»
- 53.zk. 2005ko iraila «Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 2004»
- 54.zk. 2005ko urria «Gainazalak Tratatzeako Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumenekarpena (2005-2006)»
- 55.zk. 2005ko azaroa «2005ko Ingurumen-adierazleak»
- 56.zk. 2006ko apirila «Nekazaritza eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan 2006ko Adierazleak»
- 57.zk. 2006ko maiatza «IPPC Zuzentarauaren Eraginpean dauden Instalazioetan Ingurumen-baimen Integratua Eskatzeko gida»
- 58.zk. 2006ko uztaila «Europako Batasuneko Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako jardunbide Egokiei buruzko Eskuliburua»
- 59.zk. 2006ko uztaila «Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen inbentario bateratua. 2003»
- 60.zk. 2006ko urria «Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en Ekintza Planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa»
- 61.zk. 2006ko azaroa «Euskal Autonomia Erkidegoko Aeronautikaren eta Espazioaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egindako ingurumen-ekarpena (2006-2008)»
- 62.zk. 2006ko abendua «Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2005»
- 63.zk. 2007ko otsaila «Gida metodologikoa Iraunkortasunaren Alderdi Soziala. Nola indartu Tokiko Agenda 21en alderdi soziala?»
- 64.zk. 2007ko martxoan «Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2006ko Ingurumen-adierazleak»
- 65.zk. 2007ko uztaila «Natur ingurunean Udalek dituzten Eskumenen gida»
- 66.zk. 2007ko apirila «Osasuna eta Ingurumena. Euskal Autonomia Erkidegoan. 2007ko adierazleak»
- 67.zk. 2007ko abendua «Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2006»
- 68.zk. 2008ko urtarrila «Tokiko Agenda 21 Landa Eremuko Udalerrietan»
- 69.zk. 2008ko urtarrila «2007ko Industria Ekobarometroa»
- 70.zk. 2008ko apirila «2007ko Ingurumen-adierazleak»
- 71.zk. 2008ko uztaila «Basogintza eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2008ko adierazleak»
- 72.zk. 2008ko iraila «Ekobarometro soziala. EAEko herritarrek ingurumenari buruz egiten duten balorazioa»

Argitaraldia:

1.a, 2008ko iraila

© IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Urkixo Zumarkalea, 36-6.a (Bizkaia Plaza) • 48011 Bilbo
Tel.: 94 423 07 43 • Faxe: 94 423 59 00

Argitaratzaileak:

IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
www.ihobe.net

Diseinua eta diagramazioa:

canaldirecto. www.canal-directo.com

Itzulpenak:

Elhuyar

Lege kopurua:

XXXXX

Dokumentu hau prestatzeko, Siadeco enpresaren laguntza jaso dugu.

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA. Debebatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sis-temetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere —elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.—, jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua.



ekobarometro soziala 2008



garapen iraunkorra
DESARROLLO SOSTENIBLE

EAE-KO HERRITARREK INGURUMENARI
BURUZ EGITEN DUTEN BALORAZIOA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net

Gure esku dago
está en nuestras manos

Ingurumen Estrategiaren
Agiria Saila 72. zk. 2008ko iraila

Eusko Jaurlaritzaren mendeko
Sozietate Publikoa

ihobe

Aurkezpena



ESTHER LARRAÑAGA GALDÓS

Eusko Jaurlaritzako
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu
sailburua

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekobarometro Soziala gizartearen eginiko azterketa bat da, euskal biztanleen ezinegonak eta premiak bi ikuspegitatik ezagutzeko bidea ematen duena. Alde batetik, kalitatezko ingurumena eskatzen duelako eta, bestetik, ingurumenean kalteak eragiten dituen agenteak delako. Bildutako informazioak herritarrek ingurumen arazo larrien inguruan daukaten ikuspegia-aren bilakaera ezagutzeko aukera ematen dio Administrazioari, eta gai horietako politikak, programak eta jarduerak hobetzeko eta doitzeko.

Herritarrek ingurumenaren egoerari buruz duten ikuspegia ezagutzea ezin ego-kiagoa da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak gure erkidegoko ingu- rumenaren egoera ezagutzeko xedearekin egiten dituen aldizkako azterketak eta ikerketak osatzeko, nola diren Ekobarometro Industrial edota Ingurumen Adierazleak.

Esku artean duzun azterlanak hainbat datu garrantzitsu uzten ditu agerian. Ingurumena babesteko eta kontserbatzeko beharra EAEko lehentasunezko hel- buruen artean kokatzen duten herritarren kopurua hirukoiztu egin da 2001ean lehen Ekobarometro Soziala argitaratu genuenetik. Bestalde, biztanleen % 63ren iritzian, klima aldaketa da garrantzi handieneko ingurumen arazoa.

Nabarmentzekoa da, bestalde, inkestari erantzun dioten EAEko biztanleen % 73 prest daudela produktu batengatik gehiago ordaintzeko, gutxiago kutsatzen duela jakinez gero. Antzeko kopuruaren aburuz, bestalde, ingurumenak eragina du bere bizi kalitatean.

Ekobarometro Sozial berri honen emaitzek erakusten dutenaren arabera, sendotuz doa jendearen ingurumen kontzientzia aktiboa. Beraz, produktu eta zerbitzu iraunkorrak eskatuko zaizkie enpresei, eta administrazio publikoek euskal herritarren artean zabaltzen ari den ingurumen sentiberatasun horri erantzuneko dioten ingurumen politikak garatu beharko dituzte.

Aurkibidea



Orriak

0	■	SARRERA ETA ALDERDI METODOLOGIKOAK	04
1	■	INGURUMENARI BURUZKO KEZKA 1. Ingurumenaren testuingurua eta pertzepzioa [07] 2. Ingurumenari buruzko kezka-maila [11]	06
2	■	INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA 1. Informazio pertsonala eta iturriak [15] 2. Eragileen konfiantza [20]	14
3	■	INGURUMENAREN ARLOKO JARRERA ETA AHALEGINA 1. Ingurumena babesteko ahaleginak [25] 2. Ingurumenaren aurreko portaera eta jarrera [27]	24
4	■	KONTSUMO 1. Eskura dagoen informazioa [31] 2. Ohituren aldaketa [32] 3. Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuen eskuragarritasuna [34]	30
5	■	KLIMA-ALDAKETA 1. Klima-aldaketaren existentzia eta kausak [37] 2. Ingurumenak duen eragina eta eragiten duen kezka [38]	36
6	■	INGURUMENAK POLITIKAN DUEN GARRANTZIA 1. Bizi-kalitatean duen eragina [41] 2. Erabakitze-prozesu politikoetan duen garrantzia [42]	40
7	■	INGURUMENAREN ARLOKO PROPOSAMENAK ETA NEURRIAK 1. Ingurumen-egoerari eta eragile poluitzaileei buruzko pertzepzioa [47] 2. Ingurumen-arazoak konpontzeko erabakitze-mailak eta neurriak [48] 3. Ingurumen-arazoak eta -irtenbideak [51]	46
8	■	ONDORIOAK	54



Sarrera eta alderdi metodologikoak



lhobek bultzatu duen 2008ko Ekobarometro Sozialak EAEko herritarren kezak eta beharrak ezagutzeko datuak lortzea du helburu. Herritarrak bi ikuspegitatik aztertzen ditu Ekobarometroak: batetik, kalitateko ingurumenaren eskatzaile gisa eta, bestetik, inpaktuen sortzaile gisa. Hala, EAEko gizarteak ingurumenari buruz egiten duen balorazioa ezagutzeko informazioa lortu nahi da, herritarrek gai horren inguruan duten iritzia eta jarrera aztertuta. Informazio hori guztia kontuan hartzen du Administrazioak ingurumenaren arloan martxan jarriko dituen programa eta jardueren norabide soziala baloratu eta definitzeko.

Ikuspegi sinkronikotik eta bilakaeraren ikuspegitik abiatuta (2001-2007 epealdia aztertuta), arlo hauek interpretatzeko balio du proiektuak:

- Gizartearen kezak eta beharrak, ingurumen-kalitatearen eskatzaile eta inpaktuen sortzaile gisa.
- Ingurumen-inpaktuak murrizteko informazioa eta parte-hartze publikoa hobetzeko Administrazioak martxan jarritako ekintzen eraginkortasuna.
- Kontsumitzeko eta bizitzeko ohiturak aldatuz, gizarteak ingurumenari egiten dion presioa murrizteko hezkuntzari, informazioari eta komunikazioari lotutako tresnak zehaztean Administrazioak kontuan hartu beharko lituzkeen ildoak buruzko proposamenak. Oinarritzotzat jotzen da hori ingurumen-kalitateari buruzko helburuak eta neurriak proposatzeko orduan.

Ekobarometro Sozial honetan, 2007ko emaitzak jasotzen dira, eta, posible denean, 2001eko eta 2004ko Ekobarometro Sozialetako datuekin alderatzen dira. Horrez gain, aukera dagoenean, Europako Batasuneko datuekin ere alderatzen dira Ekobarometroko datuak:

- Ahal izanez gero, Europako Batasunaren 295. Ezohiko Eurobarometroan («*Attitudes of European citizens towards the environment*») jasotako datu berrienekin. Ingurumenaren arloko Zuzendaritza Orokorrak eskatuta egin zen eurobarometro hori, eta 2007ko azaroan eta abenduan egin zuten landa-azterketa. Kasu horretan, EB27 da erreferentzia (2007ko Europako Batasuneko 27 estatuak).
- datu horiekin konparaketa egitea ezinezkoa denean, Europako Batasunaren 217. Ezohiko Eurobarometroko datuak («*The attitudes of European citizens towards the environment*») hartzen dira erreferentzia gisa. 2004ko azaroan egin zen eurobarometro horretarako landa-azterketa. Kasu horretan, EB 25 da erreferentzia (2004ko Europako Batasuneko 25 estatuak).

Bestalde, datuak erabiltzeko eta aztertzeko orduan, garrantzi berezia eman zaio generoaren aldagaiari. Hala, azaldutako ingurumen-arazoei buruzko iritzian emakume eta gizonezkoen artean alde nabarmenak daudenean, atal berezi batean azaltzen dira alde horiek.

Segidan, lan honetako fitxa teknikoaren alderdi metodologiko nagusiak azalduko ditugu.

2008ko Ekobarometro Sozialaren Fitxa Teknikoa

UNIBERTSOA	EAEEn bizi diren 15 urtetik gorako biztanleak. 2006ko udal- erroldaren berrikuspenaren arabera (EIN), 1.870.854 biztanle dira.
TEKNIKA	Etkez etxe egindako elkarrizketa pertsonala, aztertutako unibertsoaren lagin adierazgarri bati egindako galdeketa egituratuaren bidez gauzatu.
GALDEKETAREN EZAUGARRIAK	235 item inguruko galdeketa proposatu da, 380 grabazio-posizio izan dira gehienez (2004ko Ekobarometro Soziallean erabilitakoaren antzekoa da dimentsioaren eta konplexutasunaren aldetik —galdera motak—).
LAGINEN TAMAINA	EAEEn bizi diren 15 urtetik gorako pertsonen egindako 2.000 inkesta.
LANDA-AZTERKETAREN DENBORALDIA	2007ko urria-azaroa.
LAGINKETA-MOTA	Eta pa anitzeko laginketa, sekzioen ausazko aukeraketarekin, eta EAEko sekzio bakoitzaren pisu demografikoaren araberrako probabilitatea aintzat hartuta. Lagineko pertsonen azken aukeraketa egiteko ausazko ibilbideen eta kuota zuzentzaileen sistema aplikatu da, sexuaren, adinaren eta jarduerarekin duten harremanaren arabera. Ibilbide bakoitzeko 10 inkesta egin dira, laginaren «sakabanaketa handiagoa» —eta, beraz, adierazgarritasun handiagoa— bermatzeko.
ERRORE-MARJINA ESTADISTIKOA	Errore-marjina globala: % $\pm 2,23$, % 95,5eko konfiantza-tartearekin (ausazko laginketa bakuna egin dela suposatuz, alegia, $p=q=0,5$ izanik).

2008ko EAEko Ekobarometro Sozialaren Edukiak

EDUKIAREN ARDATZAK	AZTERTUTAKO ALDERDIAK
SARRERA	Testuinguru orokorra, egindako inkesta-prozesuaren fitxa teknikoa.
1. INGURUMENARI BURUZKO KEZKA	Ingurumenaren garrantzia lehenetsunezko helburu gisa, ingurumenari buruzko kezken maila eta biztanleak gehien kezkatzen dituen gaiak.
2. IINGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA	Ingurumenari buruzko informazio-maila, informazioaren gabeziak, lehenetsunezko informazio-iturriak, informazio-iturriekiko konfiantza-maila.
3. INGURUMENAREN ARLOKO JARRERA	Ingurumenaren aldeko ahalegin pertsonala, ingurumena hobetzeko kostu ekonomikoak onartzeko prestasuna.
4. KONTSUMOA	Kontsumo iraunkorrari buruzko informazioa, kontsumo-ohitura pertsonalak aldatzeko prestasuna, ingurumena errespetatzen duten produktuen eskuragarritasuna
5. KLIMA-ALDAKETA	Klima-aldaketaren egiazkotasunari buruzko iritzia, klima-aldaketaren kausak, pertsonen klima-aldaketan duten eragina, klima-aldaketari buruzko kezka eta klima-aldaketaren ondorioak.
6. INGURUMENAK POLITIKAN DUEN GARRANTZIA	Ingurumenak bizi-kalitatean duen eragina eta erabakitze-prozesu politikoetan duen garrantzia.
7. INGURUMENAREN ARLOKO PROPOSAMENAK	Hainbat arlotako ingurumen-egoerari buruzko pertzepzioak, eragile poluitzaile nagusiak, ingurumen-arazoak konpontzeko neurriak eta lurralde-mailak.
8. ONDORIOAK	EAEko biztanleek ingurumenari buruz dituzten pertzepzio eta jarreraren laburpena.

INGURUMENARI BURUZKO KEZKA



1. INGURUMENAREN TESTUINGURUA ETA PERTZEPZIOA

1.1. Ingurumena babestea EAE-ko egungo eta etorkizuneko helburuen artean

Oraindik ere, 15 urtetik gorako EAEko biztanleek helburu honi ematen diote lehentasun nagusia: aberastasuna sortzea eta enplegua haztea. 10etik 3k diote hori. Horren ondoren, gatazka politiko eta soziala eta pobrezia murriztearen garrantzia aipatzen dute (biztanleen % 20-21 inguruk, kasu bakoitzean).


Segidan, biztanleen % 12k diote ingurumena babestea eta zaintzea dela EAEko helbururik garrantzitsuena.

Arlo horretan izandako bilakaera kontuan hartuta, gaur egun, helburu garrantzitsuen rankin-garen laugarren lekuan dago ingurumena. Dena den, ingurumena lehentasunezko helburutzat duten pertsonen ehunekoa etengabe hazten joan da (% 4, % 7 eta, gaur egun, % 12). Bestalde, helburu hauei ere geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaie: pobrezia murriztea (% 12, % 17, % 21) eta biztanleen osasuna hobetzea (% 2, % 5, % 8).

Aldiz, nahiz eta aberastasuna eta enplegua sortzeko eta gatazka politiko eta soziala murrizteko helburuek lehenak izaten jarraitzen duten, gero eta ehuneko txikiagoak dituzte. Beraz, helburu bakoitza aipatzen duten pertsonen ehunekoak berdintzeko joera nabaritzen da. Prozesu horren ondorioz, 2008ko Ekobarometro Sozialean, pobrezia murrizteari lehentasuna ematen dioten pertsonen ehunekoa puntu 1 handiagoa da, doi-doi, gatazka sozial eta politikoa murriztearen garrantzia aipatzen dutenena baino (% 20).

**INGURUMENA
BABESTEA ETA
ZAITZEA GERO
ETA GARRANTZI
HANDIAGOA HARTZEN
ARI DA EAEKO
BIZTANLEEN EGUNGO
ETA ETORKIZUNEKO
HELBURUEN ARTEAN**

1. GRAFIKOA: GAUR EGUN, ZEIN DA EAĒREN HELBURUA NAGUSIA?




Iturria: Ilobe 2001, 2004, 2007.



Hemendik 10 urtera EAEk izango dituen lehentasunezko helburuei dagokienez, lehenengo aldiz, EAEko biztanle gehienek ingurumena babestea eta zaintzea aipatzen dute (% 26), beste hauen aurretik: aberastasuna eta enplegua sortzea (% 23), pobrezia murriztea (% 14) eta gatazka politiko eta soziala murriztea (% 13).

Bilakaeraren ikuspegitik, ingurumena babestu eta hobetzeko eta biztanleen osasuna hobetzeko helburuek etengabeko hazkunde-joera adierazten dute, 2001-2004-2007 epealdian izandako bilakaera kontuan hartuta.

2. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZEIN IZANGO DA EAĒREN HELBURU NAGUSIA HEMENDIK 10 URTERA?



Iturria: Ihobe 2001, 2004, 2007.

1.2. EAEko herritarren asoziazionismoa

Batez beste, EAEko 15 urtetik gorako biztanleen % 5 elkarteren bateko kide da. Ingurumenaren arloko asoziazionismoa (ekologistak, natura babesteko elkarteetako kideak), berriz, maila horretatik behera dago: biztanleen % 2 horrelako elkarteetako kide dira. Politikaren, kontsumitzaile eta erabiltzaileen, bakezaleen eta feministen arloko elkarteek ere antzeko ehunekoak dituzte. Kirolen arloko eta kultura, gastronomia eta aisialdiko elkarteek dituzte kide gehienak (% 11 eta % 13 artean).


Generoa kontuan izanda, oro har, gizonezkoek gehiago parte hartzen dute elkarteetan. Elkarte ekologistetan ere antzera gertatzen da, baina oso alde txikiarekin (% 3 gizonezkoak dira eta % 2 emakumezkoak).

Bilakaeraren ikuspegitik, 2004-2007 epealdian, hainbat elkartetako kideen kopurua geratzeko edo pixka bat murrizteko joera nabaritzen da (kirol-elkarteak, erlijiosoak, euskararen aldekoak, bakezaleak, politikoak, ekologistak, kontsumitzaile eta erabiltzaileenak eta feministak). Aitzitik, elkarte hauetako kideen kopuruak goranzko joera txiki bat erakusten du: kultura, gastronomia eta aisialdi arlokoak; sindikalak; GKEak eta elkargo eta elkarte profesionalak.

Gizarteak ingurumena babestu eta zaintzeari gero eta garrantzi handiagoa ematen dion arren, elkarte ekologikoetako edo natura babestearen aldeko elkarten asoziazionismoa ez da hazi.

INGURUMENAREN ARLOKO ASOZIAZIONISMOA GELDITUTA DAGO, POLITIKAREN, KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN, BAKEZALEEN ETA FEMINISTEN ARLOKO ASOZIAZIONISMOAREN PAREAN

3. GRAFIKOA: GAUR EGUN, ERAKUNDE EDO ELKARTE MOTA HAUETAKO BATEKO KIDE ZARA? (ELKARTE EDO ERAKUNDE BATEKO KIDE DIREN PERTSONEN EHUNEKOA)



Iturria: Ihobe 2004, 2007.


1.3. Ingurumenaren irudia eta pertzepzioa

EAEko 10 pertsonatik 3k «ingurumen» kontzeptua hiri eta herrien poluzioarekin lotzen dute, hau da, kontzeptuaren ikuspegi negatibo edo problematikoa dute. Horien ondoren, beste bi talde daude: batetik, «ingurumena» natura babesteko ideia proaktiboarekin lotzen dutenak (% 18) eta paisaia berde eta atseginen irudi positiboarekin lotzen dutenak (% 19).

**GERO ETA GEHIAGO,
INGURUMENA ARAZO
GISA EDO GAUZA
NEGATIBO GISA IKUSTEN
DA (ADIBIDEZ, HIRI
ETA HERRIETAKO
POLUZIOAREKIN
LOTZEN DA)**

2004-2007an, «ingurumena» irudi hauekin lotzeko joaeraren hazkundera nabaritu da: herri eta hirien poluzioa (% 28tik % 31ra), gure seme-alabek oinordetuko duten natura (% 9tik % 11ra), ingurumena hobetzeko erantzukizun indibiduala (% 3tik % 6ra) eta hondamendi naturalak (% 3tik % 6ra). Beraz, badirudi ingurumena arazo gisa (poluzioa, hondamendiak), etorkizuneko belaunaldienganako kezka gisa eta erantzukizun pertsonal gisa ikusteko nolabaiteko joera dagoela. Aldiz, ingurumena gozamenerako elementu gisa ikusten dutenen kopuruak behera egin du. Neurri handi batean, azken aldian ingurumenarekin lotutako hainbat arlori buruz ematen den informazioak eta gai horiei ematen zaien garrantziak eragina dute bilakaera horietan.

4. GRAFIKOA: «INGURUMENARI» BURUZ HITZ EGITEAN, ARLO HAUETAKO ZEIN ETORTZEN ZAIZU LEHENENGO BURURA?



Iturria: Ihobe 2004, 2007.

2004an EB 25en erregistratu zen bezala, EAEn ere, ingurumena hiri eta herrien poluzioarekin lotzen da, batez ere (% 31). Hala, Irlandaren (% 29) edo Espainiaren (% 34) parean dago arlo horretan. EAEn ingurumena natura babestearekin lotzen dutenen ehunekoa (% 18) EB 25eko batezbestekoa baino txikiagoa da (% 22), eta, adibidez, Italia (% 19) eta Austriakoaren (% 20) antzekoa. Bestalde, EAEn jende gehiagok lotzen du ingurumena paisaia berde eta atseginekin, batez beste, EB 25en baino (% 11). Gure seme-alabek oinordetuko duten naturarekin lotzen dutenen ehunekoa, aldiz, EB 25en 2004ean erregistratutakoa baino 6 puntu baxuagoa da.

	Herri eta hirien poluzioa	Natura habestea	Gure seme-alabek oinordetuko duten natura (%)	Paisaia berde eta atseginak (%)	Ingurumena hobetzeko erantzukizun indibiduala	Bizi naizen lekuko bizi-kalitatea	Lurrikarak, uholdeak eta bestelako hondamendi naturalak	Natur baliabideen kontsumoa
EB 15	26	22	18	11	8	7	4	3
EB 25	25	22	17	11	8	7	4	3
EAE	31	18	11	19	6	5	6	3

1. TAULA: «Ingurumenari» buruz hitz egitean, alderdi hauetatik zein etortzen zaizu burura lehenengo? (%)

Iturria : Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.


2. INGURUMENARI BURUZKO KEZKA-MAILA

2.1. Ingurumen-arazoei buruzko kezka-maila, oro har

2001-2004-2007 epealdian, etengabe hazten joan da ingurumen-arazoengatik kezka handia edo nahiko handia adierazten duten pertsonen kopurua (% 78tik, % 86ra eta gaur egungo % 89ra). Horietatik, kezka handia agertzen duten pertsonen ehunekoaren hazkundera nabarmendu behar da; gaur egun, EAEko biztanleen herena dira. Beraz, horrek adierazten du EAEko biztanleek gero eta sentsibilizazio handiagoa adierazten dutela ingurumenaren arloan.

BIZTANLEEN HEREN BATEK KEZKA HANDIA AGERTZEN DU INGURUMEN-ARAZOENGATIK

5. GRAFIKOA: INGURUMEN-ARAZOekin KEZKATUTA ZAUELA ESANGO ZENUKE?



Iturria: Ihobe 2001, 2004, 2007.


Ingurumen-arazoengatik kezka gutxi edo batere kezkarik agertzen ez dutenen pisu erlatiboa, berriz, etengabe murrizten joan da: % 22tik % 13ra eta gaur egungo % 10era.

Generoaren ikuspegitik, ingurumen-arazoengatik kezka handia adierazten duten emakumeen kopurua handiagoa da gizonena baino (% 35 eta % 30 hurrenez hurren).

2.2. Ingurumen-arazo kezkarrienak

Klima-aldaketa da EAEko biztanleak gehien kezkatzen dituen ingurumen-arazoa: biztanleriaren ia bi heren (% 63). Ondoren, ingurumenaren arloko kezken ranking-ean, bigarren mailan daude uraren poluzioa eta pertsonen eragindako hondamendiak (petrolio-isuriak, suteak...): biztanleen % 51-52. Hirugarrenik, hondamendi naturalak, biodibertsitatea galtzea eta airearen poluzioa aipatzen dituzte (% 42, % 41 eta % 38 hurrenez hurren). Bestalde, hauek dira

6. GRAFIKOA: ONDORENGO INGURUMEN-ARAZOETATIK ZEIN BOSTEK ARDURATZEN ZAITUZTE GEHIEN?



Iturria: Ithobe 2007.

gutxien aipatzen diren ingurumen-arazoak: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera (% 13) eta garraibideek eragindako ondorioak (% 15).

Generoaren aldagaia kontuan hartuta, gizonek kezka gehiago agertzen dute klima-aldaketagatik emakumeek baino (% 67 eta % 59, hurrenez hurren). Bestalde, emakumeek agertutako kezken ehunekoak pixka bat handiagoa da hondakin eta zaborren hazkunderaren gisako arazo hurbilago eta ohikoagoetan (% 31 emakumezkoek, eta % 28 gizonezkoek) eta eguneroko produktu kimikoek osasunean duten inpaktuan (% 26 eta % 22, hurrenez hurren).

Egoera hori 2007ko EB27koarekin alderatuz gero, ikusten da, oro har, kezka nagusiak antzekoak direla. Hala, Europan, lehenengo, klima-aldaketa aipatzen da (% 57) eta, bigarrenik, uraren poluzioa (% 42). Gai horren ondoren, airearen poluzioa eta pertsonen eragindako hondamendiak aipatzen dituzte biztanleen % 40k eta % 39k, hurrenez hurren.

Oro har, EAEko biztanleek kezka handiagoa agertzen dute proposatutako arazo gehienen aurrean. Besteak beste, arazo hauengatik kezkatutako pertsonen ehunekoak handiagoa dira: biodibertsitatea galtzea (EBn baino 18 puntu gehiago), pertsonen sortutako hondamendiak eta zarata (12 puntu gehiago kasu bakoitzean), uraren poluzioa eta hondamendi naturalak (10 puntu kasu bakoitzean).

Bestalde, 2007an, gai hauei buruz agertutako kezken ehunekoak handiagoak izan ziren EB 27n EAEn baino: produktu kimikoek osasunean duten eragina (8 puntu gehiago), genetikoki eraldatutako organismoak (7 puntu), nekazaritzako poluzioa (5 puntu) eta airearen poluzioa (2 puntu).

Klima-aldaketari buruzko kezkarik lehentasuna ematen dioten eta EAEkoen antzeko ehunekoak dituzten herrialdeak dira Danimarka (% 65), Luxenburgo (% 63) eta Finlandia (% 62). Bestalde, EAEn uraren poluziogatik kezkatutako pertsonen ehunekoak herrialde haue-takoaren antzekoa da: Suedia eta Danimarka (% 52 kasu bakoitzean) eta Txekiar Errepublika (% 54). Gizakiak eragindako hondamendiengatik kezkatutako biztanleen ehunekoak Txekiar Errepublikan erregistratutakoaren antzekoa da (% 51) eta Danimarka, Luxenburgo eta Hungariakoa baino pixka bat handiagoa (% 47 kasu bakoitzean).

EAeko Biztanleek Kezka Handiagoa Adierazten Dute Arazo Horiengatik 2007ko Europako Batezbestekoak Baino: Ingurumen-Hondamendiak, Biodibertsitatea Galtzea, Uraren Poluzioa, Klima-Aldaketa eta Zarata

	Uraren poluzioa	Pertsonen sortutako hondamendiak	Klima-aldaketa	Airearen poluzioa	Produktu kimikoek osasunean duten eragina	Hondamendi naturalak	Hondakin eta zaborren hazkundera	Natur baliabideak agortzea	Nekazaritzak eta abeltzaintzak eragindako poluzioa	Genetikoki eraldatutako organismoak erabiltzea	Biodibertsitatea galtzea	Hiritako arazoak	Garraibideen ondorioak	Gure kontsumo-ohiturak	Zarata
EB 15	41	39	58	39	32	31	22	28	22	21	24	15	13	12	7
EB 27	42	39	57	40	32	32	24	26	23	20	23	15	12	11	8
EAE	52	51	63	38	24	42	29	33	18	13	41	17	15	19	20

2. TAULA: Ondorengo ingurumen-arazoen artean, zein bostek kezkatzen zaituzte gehien? (%)

Iturria: Ithobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2007.

INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA



1. INFORMAZIO PERTSONALA ETA ITURRIAK

1.1. Ingurumen-arazoei buruz jasotako informazio pertsonalari buruzko iritzia

EAEko biztanleen gehiengoak —zehazki % 61ek— uste du, oro har, oso ondo (% 6) edo nahiko ondo (% 55) informatuta dagoela ingurumen-arazoei buruz. % 37k, berriz, uste du gaizki informatuta dagoela eta % 6k nahiko gaizki informatuta dagoela.


Ingurumenari buruz nahikoa informazio jasotzen ez dutela —alegia, nahiko gaizki edo oso gaizki informatuta daudela— uste duten pertsonen artean, emakumeen ehunekoa 8 puntu handiagoa da gizonezkoena baino (% 41 eta % 33 hurrenez hurren).

Datu horiek 2007an EB27an jasotakoekin alderatuta, ikusten da ingurumen-arazoei buruz ondo informatuta egoteko sentipena duten pertsonen ehunekoa handiagoa dela EAEn Europan baino (6 puntu gehiago).

EAEn ingurumen-arazoei buruz oso ondo edo ondo informatuta daudela uste duten pertsonen ehunekoa herrialde hauetako ehunekoen antzekoa da: Luxenburgo (% 63), Frantzia (% 61) eta Irlanda (59%).

INGURUMENAREN ARLOKO INFORMAZIO OROKORRA
EZAGUTZEAREN SENTIPENA HANDIAGOA DA EAEN EUROPAN BATEZ BESTE BAINO; ERRESUMA BATUKO, IRLANDAKO, HERBEHERETAKO, MALTAKO ETA ALEMANIAKO EHUNEKOEN PAREAN DAGO

7. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ONDO INFORMATUTA ZAUDE GAUR EGUNGO INGURUMEN-ARAZOEI BURUZ?



Iturria: Ihobe 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2007.

	Oso ondo informatuta	Nahiko ondo informatuta	Nahiko gaizki informatuta	Oso gaizki informatuta	Ed/Ee
EB 27	5	50	33	9	3
EAE	6	55	31	6	2

3. TAULA: Zure ustez, informatuta zaude gaur egungo ingurumen-arazoei buruz? (%)

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2007.

	Oso ondo informatuta + nahiko ondo informatuta (%)
EB 27	55
EAE	61

4. TAULA: Zure ustez, informatuta zaude gaur egungo ingurumen-arazoei buruz? (oso ondo informatuta + nahiko ondo informatuta erantzun duten pertsonen %)

Iturria: Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2007.

1.2. Ingurumen-arazoei buruzko informazio-falta

EUROPAN BEZALA — BAINA ERA NABARMENAGOAN — GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIO FALTA NABARITZEN DA: GENETIKOKI ERALDATUTAKO ORGANISMOEN ERABILERA, PRODUKTU KIMIKOEN OSASUNEAN DUTEN ERAGINA, BIODIBERTSITATEAREN GALERA ETA NEKAZARITZAKO POLUZIOA

EAEko biztanleek ingurumenaren arloko gai hauei buruzko informazio falta nabaritzen dute, batez ere: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera (% 48), produktu kimikoen gure osasunean duten inpaktua (% 44), biodibertsitatearen galera (% 41) eta nekazaritzako poluzioa (% 38). Bestalde, gai hauei buruzko informazio faltaren sentipena txikiagoa da: hondamendi naturalak (% 14), hirietako arazoak (% 17), kontsumo-ohiturak (% 19) eta zarata (% 20).

Europako datuekin alderatuta, oro har, informazio-defizit handieneko gaien ehunekoak 2007an EB27n jasotako antzekoak dira: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera, produktu kimikoen gure osasunean duten inpaktua, biodibertsitatearen galera, nekazaritzako poluzioa, klima-aldaketa. Hala eta guztiz ere, desberdintasunik handiena da EAEko gizarteak informazio-falta handiagoak adierazten dituela proposatutako ia ingurumen-gai guztietan, oro har, Europako gizartea baino hobeto informatuagoa dagoela uste duen arren. Horrek adieraz dezake EAEko biztanleek ingurumen-arazoei buruz informatuta egoteko sentipen handiagoa duten arren, aldi berean, horren ondorioz, berriazko gaiei buruzko informazio-faltaren sentipen handiagoa dutela.


Genetikoki eraldatutako organismoen erabilerari buruzko informazio faltaren sentipena adierazten duten EAEko biztanleen ehunekoa herrialde hauetako ehuneko antzekoa da: Lituania (% 49), Grezia (% 47), Alemania eta Austria (% 46 bi kasuetan). Bestalde, produktu kimikoen osasunean eragiten duten inpaktuari buruzko informazio falta adierazi dutenen ehunekoaren parekoak jaso dira Danimarkan, Estonian eta Eslovenian (% 44).

	Produktu kimikoen osasunean duten eragina	Genetikoki eraldatutako organismoen erabilera	Nekazaritzak eta abeltzaintzak eragindako poluzioa	Natur baliabideak agortzea	Biodibertsitatea galtzea	Uraren poluzioa	Klima-aldaketa	Pertsonen sortutako hondamendiak	Airearen poluzioa	Hondakin eta zaborren hazkundea	Garraio bideen ondorioak	Hondamendi naturalak	Zarata	Gure kontsumo-ohiturak	Hirietako arazoak
EB 27	36	34	28	26	26	27	26	21	21	17	13	14	12	12	11
EAE	44	48	38	32	41	30	35	32	23	22	22	14	20	19	17

5. TAULA: Ondorengo ingurumen-arazoen artean, zein bostetan nabaritzen duzu informazio-falta handiena? (%)

Iturria: Ithobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2007.

8. GRAFIKOA: INGURUMEN-ARAZOEN ARTEAN, ZEIN BOSTETAN NABARITZEN DUZU INFORMAZIO-FALTA HANDIENA?




Iturria: Iñobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2007.



Ondorengo grafikoan, EAEko herritarrek zenbait ingurumen-arazori buruz adierazitako kezkarren eta arazo horiei buruzko informazio faltaren sentipenaren arteko konparaketa egiten da. Konparaketa hori oinarritzat hartuta, bost kategorია egin daitezke:

- Lehenengoan, herritarren ustez kezkarrienak diren ingurumen-gaiak daude: klima-aldaketa, uraren poluzioa eta pertsonen eragindako hondamendiak. Herritarrek informazio falta «ertaina» adierazten dute gai horiei buruz.
- Bigarren kategorian dauden ingurumen-arazoen aurrean herritarrek kezka «ertaina» eta informazio falta «ertaina» agertzen dute (adibidez, biodibertsitatea galtzea eta naturalibideak agortzea).
- Hirugarren kategorian, gairik «berrienak» daude: genetikoki eraldatutako organismoen erabilera, eguneroko produktu kimikoek osasunean duten eragina, nekazaritzak eta abeltzaintzak eragindako poluzioa. Gai horiei buruzko informazio falta handia dela uste dute herritarrek, baina ez dira gehien kezkatzen dituzten gaiak.
- Laugarren taldeko ingurumen-arazoen aurrean herritarrek kezka «ertaina» adierazten dute, baina, kasu horietan, informazio faltaren sentipena «txikia» da: hondamendi naturalak, airearen poluzioa eta hondakinak eta zaborrak ugaritzea.
- Bosgarren kategorian dauden gaiak buruz agertzen dute herritarrek kezkarik gutxien, eta, gainera, gai horiei buruz, informazio-faltaren sentipen txikiagoa dute: gure kontsumo-ohiturak, hirietako arazoak, zarata eta garraiobideek eragindako ondorioak, hau da, eguneroko ingurumen-arazoak, hiriko bizitzarekin lotura handiena dutenak.

9. GRAFIKOA: ZENBAIT INGURUMEN-ARLORI BURUZKO KEZKAREN ETA INFORMAZIO-FALTAREN ARTEKO ERLAZIOA



Iturria: Ithobe 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2007.

1.3. Ingurumenari buruzko informazio-iturri nagusiak


EAEko herritar gehienentzat (10 pertsonatik 8) telebista da ingurumenari buruzko informazio-iturri nagusia. Gehien aipatutako bigarren informazio-iturria, berriz, egunkariak dira (% 68) eta hirugarrena irratia (% 42).

Generoen arabera azterketari dagokionez, ingurumen-informazioa jasotzeko gizonak gehiago erabiltzen dituzte egunkariak eta Internet emakumeek baino (% 72 gizonak eta % 63 emakumeek eta % 24 gizonak eta % 17 emakumeek, hurrenez hurren). Emakumeek, berriz, gehiago jotzen dute telebistako albistegietara (% 81 emakumeek eta % 76 gizonak).

2007an, EAEn bezala, EB27n ere telebistako albistegiak eta egunkariak izan ziren ingurumenari buruzko bi informazio-iturri nagusiak. Hala ere, ehunekoak txikiagoak dira (% 68 eta % 43, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, Europan, filmak eta telebistako dokumentalak dira gehien aipatutako hirugarren informazio-iturria (% 33 eta EAEn % 24). EAEn, berriz, irratia dago postu horretan. Europan, EAEn ez bezala, Internetek irratia baino indar handiagoa du ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko iturri gisa (% 24 Europan eta % 20 EAEn).

INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRI GISA, TELEBISTA, EGUNKARIAK ETA IRRATIA GEHIAGO ERABILTZEN DIRA EUROPAN BAINO. FILMAK, TELEBISTAKO DOKUMENTALAK ETA INTERNET, BERRIZ, GUTXIAGO ERABILTZEN DIRA

10. GRAFIKOA: ¿ZEINTZUK DIRA INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ERABILTZEN DITUZUN HIRU INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIAK?



Iturria: Ithobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2007.

EAEEn, ingurumenari buruzko informazio-iturri nagusizat telebistako albistegiak dituzten pertsonen ehunekoak herrialde hauetako ehunekoen antzekoak dira: Portugal (% 79), Danimarka (% 78) eta Lituania (% 77). Bestalde, EAEen egunkariak aipatzen dituzten pertsonen ehunekoak Finlandian eta Suedian erregistratutakoaren antzekoa da (% 67 kasu bakoitzean). Internetek informazioa hedatzeko duen indarra kontuan hartuta, esan behar da EAEen ingurumenari buruzko informazio-iturri nagusi gisa sarea erabiltzen duten pertsonen proportzioa herrialde hauetakoaren antzekoa dela: Belgika (% 23), Austria (% 21) eta Hungaria (% 19).

	Telebistako albistegiak	Egunkariak	Filmak eta telebistako dokumentalak	Iratia	Albizkariak	Senide, lagun eta lankideekin egindako elkarrizketak	Argitalpenak, liburuak, informazio-materiala	Internet	Liburuak	Biltzarak, hitzaldiak, kongresuak
EB 27	68	43	33	20	16	12	8	24	5	3
EAE	78	68	24	42	17	15	11	21	6	4

6. TAULA: Zeintzuk dira ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dituzun hiru informazio-iturri nagusiak? (%)

Iturria: Iñobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2007.

2. ERAGILEEN KONFIANTZA

2.1. Eragile administratibo eta sozialen konfiantza ingurumenaren arloan


ELKARTEAK DIRA INGURUMENAREN ARLOKO GAJETAN KONFIANTZA HANDIENA SORTZEN DUTEN GIZARTE-ERAGILEAK

Eragile publikoei dagokienez, EAEko biztanle gehienek Eusko Jaurlaritzan dute konfiantza (% 25), ondoren, udaletan (% 20) eta, segidan, EBn (% 16). Biztanleen % 10 baino gutxiagok ematen diete konfiantza handiena foru-aldundiei (% 9) eta are gutxiagok Estatuko Gobernuari (% 2). Azpimarratu behar da ia 4 pertsonatik 1ek dioela erakunde publikoek ez diotela batere konfiantzarik ematen ingurumen-gaietan.

Bestalde, ingurumenari buruzko gaietan, emakumeek gizonek baino joera handiagoa dute tokiko administrazioan (udala, foru-aldundia), Eusko Jaurlaritzan edo Estatuko Gobernuan konfiantza izateko (1 eta 3 puntu arteko diferentzia). Gizonek, berriz, konfiantza handiagoa adierazten dute EBn eta ez dute konfiantzarik agertzen eragile instituzionaletan (4 puntu inguruko aldea emakumeekiko).


Ingurumena babestearen aldeko elkarteak dira, EAEEn, ingurumenaren arloko konfiantzamaila handiena sortzen duten gizarte-eragileak (herritarren % 44k aipatzen ditu). Gainerako eragileetan askoz ere konfiantza gutxiago agertzen dute herritarrek; horien artean, zientzialarien kolektiboa nabarmentzen da (% 17).

11. GRAFIKOA: ZEIN ERAGILE ADMINISTRATIBORENGAN DUZU KONFIANTZA HANDIENA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO GAIETAN?



Iturria: Ihobe, 2007.

12. GRAFIKOA: ZEIN ERAGILE SOZIALENGAN DUZU KONFIANTZA HANDIENA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO GAIETAN?




Iturria: Ihobe, 2007.

**TELEBISTA DA
INGURUMENARI
BURUZKO INFORMAZIO-
ITURRI NAGUSIA ETA
KONFIANTZA HANDIENA
SORTZEN DUENA**

2.2. Informazio-iturrien konfiantza ingurumenaren arloan

EAEko herritarrek informazio-iturri hauetan adierazten dute konfiantza handiena ingurumenari buruzko gaietan: telebista (% 36) eta, bigarren mailan, egunkariak eta irratia (% 27 eta % 21). Lehenago esan dugun bezala, hain zuzen, informazio-iturri horiek erabiltzen dira gehien informazio mota hori jasotzeko.

13. GRAFIKOA: ZEIN INFORMAZIO BITARTEKORENGAN DUZU KONFIANTZA HANDIENA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO GAIETAN?



Iturria: Iñobe, 2007.





INGURUMENAREN ARLOKO JARRERA ETA AHALEGINA



1. INGURUMENA BABESTEKO AHALEGINAK

1.1. Ingurumena babesteko ahaleginen maiztasuna


EAEEn, biztanleen gehiengo zabal batek (4 pertsonatik 3k) dio ingurumena zaintzeko ahaleginak sarri (askotan eta dezentetan) egiten dituela. Zehazki, herritarren % 16k diote askotan egiten dituztela ahaleginak ingurumenaren alde. Aitzitik, % 25en arabera, ingurumena babesteko ahaleginak gutxitan edo inoiz ez dituzte egiten.

Generoaren aldagaia kontuan hartuta, ahalegin hori sarri (askotan edo dezentetan) egiten dutela dioten emakumeen ehunekoa pixka bat handiagoa da gizonena baino (% 77 eta % 72, hurrenez hurren).

Europar ere, gehienek diote ingurumena babesteko ahaleginak egiten dituztela: % 43k diote sarri egiten dituztela eta % 42k batzuetan egiten dituztela.

**LAU PERTSONATIK
HIRUK DIOTE
INGURUMEN BABESTEKO
AHALEGINAK ASKOTAN
EDO DEZENTETAN
EGITEN DITUZTELA**

**18. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZENBAT ALDIZ EGITEN DUZU
AHALEGINA INGURUMENAREN ALDE?**



Iturria: Ihobe 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2004.

Oharra: Datuak konparatzean, kontuan hartu behar da EAEko galdeketa aukeran zeuden erantzun-modalitateak ez direla guztiz Europar erabilitako berdinak. Hala, EAEEn modalitate hauek erabili dira: «askotan, dezentetan, gutxitan edo inoiz ere ez». Eta hauek dira 2004an EB 25en erabilitakoak: sarri, batzuetan, gutxitan edo inoiz ere ez».





**INGURUMENAREN
ALDEKO AHALEGINEK
SORTZEN DITUZTEN
ERAGOZPEN
PERTSONALAK AIPATZEN
DITUZTE EAEKO
BIZTANLEEK AHALEGIN
HORIEK EZ EGITEKO
ARRAZOI NAGUSI GISA.
2004AN EUROAPAN,
BERRIZ, POLUITZAILE
HANDIEN ETA BESTE
PERTSONEN
INPLIKAZIO FALTA
AZPIMARRATZEN ZEN**


1.2. Ingurumena babesteko ahaleginak ez egiteko arrazoiak

Ingurumena babesteko ahalegin txikiena egiten duten pertsonen artean (% 25ek diote gutxi egiten dutela edo batere ez dutela egiten), batez ere, arrazoi hauek aipatzen dituzte portaera hori azaltzeko: % 42k ahalegin horiek sortzen dituzten eragozpenak (denbora, kostua...) aipatzen dituzte, eta, % 31ren ustez, beren ahaleginak ez du eraginik poluitzaile handiek (industria...) gauza bera egiten ez badute.

Generoaren aldagaia kontuan hartuta, emakumeek gizonek baino gehiago aipatzen dute ingurumen-portaera egokia izateak eragozpenak sortzen dituela (% 46 eta % 40, hurrenez hurren). Gizonek, berriz, emakumeek baino gehiago esaten dute beren portaerak ez duela eraginik poluitzaile handiek berdin egiten ez badute (% 35 eta % 25, hurrenez hurren).

EAEEn gertatzen denaz bestera, 2004an, EB 25en ingurumena babesteko ahalegin gutxien egiten zituzten pertsonak aipatzen zuten arrazoi nagusia zen beren portaerak eragin txikia duela poluitzaile handiek eta beste pertsonak berdin egiten ez badute (% 33 eta % 27 hurrenez hurren), eta gutxiagok aipatzen zituzten portaera horrek sortzen dituen eragozpenak (% 21). Beraz, EAEEn gehiago azpimarratzen da ingurumenaren aldetik egokia den portaera izateak duen kostu pertsonala. Europan, berriz, gehiago aipatzen dute beste eragile sozialen inplikazio eskasa pertsonalki ez jarduteko arrazoi gisa.

19. GRAFIKOA: ZERGATIK EZ DUZU EGITEN AHALEGIN HANDIAGOA INGURUMENA BABESTEKO?



Iturria: Ithobe 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2004.



2. INGURUMENAREN AURREKO PORTAERA ETA JARRERA

2.1. Ingurumenaren arloko jarduera pertsonala eta emaitzak

Ingurumenaren aldeko ahaleginak egiten dituzten pertsonen % 58 eszeptikotzat har daitezke. Izan ere, haien ustez, ingurumenaren alde egiten dituzten ekintzek ez dute eraginik izango gainerakoek (% 24) edo beste poluitzaile handiek (% 34) berdin jokatzeko ez badute. Ehuneko hori 2004an EB 25en erregistratutakoaren ia berdina da (% 57).


Bestalde, % 21ek uste dute beren jarduerak eragin positiboak dituztela ingurumenean. Ehuneko hori 2004an EB 25en jasotakoa baino pixka bat handiagoa da (2 puntuko aldea).

Batetik, ingurumena babesteko egindako banakako ahaleginak eta, bestetik, ingurumenaren aldeko jarduera pertsonalak eskatzen duen ahaleginari buruzko pertzepzioak kontuan hartuta, herritarren jarrerak kategoria hauetan bana daitezke:

- Konbentziturik daudenak: ingurumena babesteko ahalegina askotan edo dezentetan egiten dute, eta ahalegin horrek emaitza positiboak dituela uste dute.
- Eszeptikoak: ingurumena babesteko ahalegina askotan edo dezentetan egiten dute, baina uste dute ahalegin horrek ez duela eragin handirik beste eragile batzuek (gainerako pertsonak eta poluitzaile handiak—adibidez, industriak—) berdin egiten ez badute.
- Konbentziturik ez daudenak: ingurumena babesteko ahaleginak askotan edo dezentetan egiten dituztela diote, baina uste dute hori ez dela nahikoa, batzuen ustez, ahalegin horiek egiteak sortzen dizkien eragozpen handiengatik eta, besteen esanetan, ingurumenaren alde gehiago egin nahiko luketen arren zer egin ez dakitelako.
- Konprometitu gabekoak: ingurumenaren aldeko ahaleginak gutxitan egiten dituzte edo inoiz ere ez.

2004AN EUROPAN JASOTAKO DATUETAN BEZALA, INGURUMENAREN ALDEKO AHALEGINAK EGITEN DITUZTELA DIOTEN EAEKO HERRITARREN IA % 60REN USTEZ, BEREN EKINTZEK EZ DUTE ERAGINIK IZANGO GAINERAKO PERTSONEK EDO BESTE POLUITZAILEEK BERDIN EGITEN EZ BADUTE

20. GRAFIKOA: BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEINEK ISLATZEN DU ONDOEN ZURE EGOERA PERTSONALA INGURUMENAREN ARLOAN?



Iturria: Ithobe 2007. Special Eurobarometer 17. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission 2004.



2004an EB 25en gertatzen zen bezala, EAEn ere, herritar gehienak eszeptikoak dira: % 43 (Europako batezbestekoa baino 6 puntu gutxiago). Oso kategoria garrantzitsua da, zeren, egindako ahaleginak emaitzarik ez dutela pentsatzen jarraitzen badute, gaur egun, ingurumenaren alde egiteko duten motibazioa gal baitezakete. Herritar eszeptikoen antzeko ehunekoak dituzte Danimarkan, Polonian (% 44 bi kasuetan) eta Herbehereetan (% 40).

Bestalde, lau herritarretik batek ez du konpromisorik hartzen ingurumenaren alde. Herritar horien ingurumen-konpromisoa ia hutsala da: apenas egiten dute ahaleginik arlo horretan. EAEko ehunekoaren antzekoak dituzte, adibidez, Italian (% 21), Hungarian (% 24) eta Polonian (% 28).

Konbentzituta dauden pertsonen taldea % 16ra iristen da. Talde garrantzitsua da, ingurumenaren arloko abangoardia soziala osatzen baitute: ingurumenaren aldeko jarduerak egiteak gehiago egiteko motibazioa sortzen die, ahalegin horren eragin positiboak ikusten dituztelako. EAEko ehunekoaren antzekoak dituzte herrialde hauek: Irlanda, Lituania (% 16 bi kasuetan), Letonia (% 15) eta Suedia (% 19).

Herritarren % 15, berriz, ez daude konbentzituta. Ingurumena babesteko ahaleginak egiten dituzte, eta gehiago ere egingo lituzkete, baina bi oztopo ikusten dituzte: batetik, ez dakite nola jokatu eta, bestetik, ahalegin horiek desabantaila asko dituztela uste dute (ekonomikoak, denbora...). Talde horrek EAEn duen ehunekoaren antzekoak dituzte, adibidez, Austrian, Frantzia (% 15 bietan), Belgikan eta Polonian (% 14 kasu bakoitzean).

	Konbentzitutakoak	Eszeptikoak	Konbentzituta ez daudenak	Konprometitu gabekoak	Ed/Ee
EB 25	17	49	19	14	1
EAE	16	43	15	25	1

7. TAULA: Ingurumen-jarreraren karakterizazioa (%)


Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission, 2004.

Generoari dagokionez, emakumeek eta gizonek kategoria bakoitzean duten pisua kontuan hartuta, EAEn ez dago desberdintasun nabarmenik (diferentzia hori 5 puntutik beherakoa da kategoria guztietan). Hala, konbentzitutakoaren eta eszeptikoen taldean pixka bat gehiago dira emakumeak, eta konbentzituta ez daudenen eta konprometitu gabekoaren kategorietan gizon gehixeago daude.

2.2. Ingurumena babesteko kostuak onartzeko prestasuna

2007an, EAEko 4 pertsonatik 3 prest egongo litzateke produktu baten truke gehiago ordaintzeko, produktu horrek poluzio gutxiago sortuko balu. 2004an ere antzeko proportzioa erregistratu zen, baina pixka bat txikiagoa.

21. GRAFIKOA: PREST EGONGO ZINATEKE PRODUKTU BATENGATIK GEHIAGO ORDAINTEKO PRODUKTU HORREK POLUZIO GUTXIAGO SORTUKO BALU?




Iturria: Ihobe 2004, 2007.

PRODUKTU BATZUEN MARKA ALDATZEKO PRESTASUNA HANDIAGO DA, HORREKIN INGURUMENAREN ALDE EGITEN BADA

EAEko herritar gehienek (% 87) diote produktu batzuen marka aldatzeko prestasun handia edo nahiko handia izango luketela horrekin ingurumenaren alde egingo balitz. Bilakaeraren ikuspegitik, produktu batzuen marka aldatzeko prestasun handia duten pertsonen taldea hazi egin da. Hala, 2004-2007 epealdian, 7 puntu hazi da, eta % 41era iritsi da. Prestasun gutxi edo batere agertzen ez dutenen taldea, aldiz, % 16tik % 10era jaitsi da.

22. GRAFIKOA: ZENBATERAINO EGONGO ZINATEKE PREST (ASKO, NAHIKOA, GUTXI EDO BATERE EZ) PRODUKTU BATZUEN MARKA ALDATZEKO, HORREKIN INGURUMENAREN ALDE EGINGO BAZENU?



Iturria: Ihobe 2004, 2007.

KONTSUMO




1. ESKURA DAGOEN INFORMAZIOA

1.1. Ingurumenaren aldetik egokia den kontsumoa egiteko informazioaren maila

EAEko biztanleen gehiengoak (% 54) uste du informazio asko edo dezente jasotzen duela ingurumenaren aldetik egokia den kontsumoa egiteko. Hala eta guztiz ere, herritarren % 45ek kontrakoa dio, alegia, mota horretako informazio gutxi edo batere ez duela. Beraz, esan daiteke EAEko biztanleak antzeko pisua duten bi talde handitan banatuta daudela: batetik, kontsumo iraunkorra egiteko nahikoa informazioa dutela uste duten pertsonen taldea (% 47) eta, bestetik, kontsumo hori egiteko informazio gutxi dutela uste dutenena (% 41).

EAEKO BIZTANLERIAREN ERDIAK BAINO GEHIAGOK (% 54) DIO INFORMAZIO ASKO EDO DEZENTE DUELA INGURUMENAREN ALDETIK EGOKIA DEN KONTSUMOA EGITEKO

23. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZENBAT INFORMAZIO JASOTZEN DUZU (ASKO, NAHIKOA, GUTXI EDO BATERE EZ) INGURUMENAREN ALDETIK EGOKIA DEN KONTSUMOA EGITEKO?



Iturria: Ilobe 2004, 2007.

1.2. Kontsumo jakin batzuei buruz eskura dagoen informazioa

EAEko 10 pertsonatik 7ren ustez, jarduera hauek egiteko nahikoa informazio dute:

- Garraio publikoa erabiltzea (% 85).
- Energia elektrikoaren kontsumoa aurrezte (% 82), adibidez, kontsumo baxuko bonbillen bidez...
- Uraren kontsumoa aurrezte (% 71), adibidez, komuneko tangen, barreiatzaileen... bidez.


Aldiz, herritarren erdiak baino gehiagok uste dute ez dutela nahikoa informazio jarduera hauek egiteko.

- Elikagai ekologikoak kontsumitzea (% 53).
- Erregai-kontsumo baxuko ibilgailuak erostea (% 52).

Generoaren aldagaia kontuan hartuta, ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean (5 puntu baino gutxiago). Dena den, erregai-kontsumo baxuko ibilgailuak erosteko informazioa dutela uste duten pertsonen taldearen barruan, gizonen ehunekoa 15 puntu handiagoa da emakumeena baino (% 50 eta % 35, hurrenez hurren).

ELIKAGAI EKOLOGIKOEI ETA ERREGAI-KONTSUMO BAXUKO IBILGAILUEI BURUZKO INFORMAZIO-DEFIZIT HANDIA DETEKTATU DA

24. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ARLO HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEN DUZU?



Iturria: Ihobe 2007.


2. OHITUREN ALDAKETA

2.1. Ingurumena gehiago errespetatzearen kontsumo-ohitura batzuk aldatzeko prestasun-maila

HERRITARREN % 20K PRESTASUN HANDIA AGERTZEN DUTE INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEAREN KONTSUMO-OHITURA BATZUK ALDATZEKO

Datuen arabera, oro har, EAEko herritarren gehiengoak (% 89) prest egongo litzateke, ingurumena gehiago errespetatzearen, kontsumo-ohitura batzuk aldatzeko. Horietatik % 20k prestasun handia agertzen dute eta % 69k nahiko handia.

25. GRAFIKOA: ORO HAR, ZENBATERAINO EGONGO ZINATEKE PREST KONTSUMO-OHITURAK ALDATZEKO INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEAREN?



Iturria: Ihobe 2004, 2007.

2.2. Kontsumo jakin batzuetarako ohiturak aldatzeko prestasuna

Datuen arabera, EAeko herritar gehienak prest daude produktu eta zerbitzu jakin batzuekin dituzten kontsumo-ohiturak aldatzeko, hala, ingurumena gehiago errespetatzeko:

- Herritarren % 96 prest legoke kontsumo-ohiturak aldatzeko, eta etxeko energia elektrikoaren eta uraren kontsumoa aurrezteko.
- % 84 prest legoke garraio publikoa erabiltzeko ohiturak aldatzeko.
- Hiru pertsonatik bi prest leudeke ohiturak aldatu, eta kontsumo baxuko ibilgailuak erosteko; ehuneko berak elikagai ekologikoak kontsumituko lituzke.

Generoa kontuan hartuta, mugikortasunarekin lotutako desberdintasunak nabaritzen dira:

- Ohiturak aldatzeaz galdetuta, emakumeek prestasun handiago agertzen dute garraio publikoa erabiltzeko: 10 puntu gehiago gizonek baino (% 89 eta % 79, hurrenez hurren).
- Gizonek, berriz, ohiturak aldatu, eta erregai-kontsumo baxuko ibilgailuak erosteko prestasun handiagoa agertzen dute emakumeek baino: 11 puntu gehiago (% 71 eta % 60, hurrenez hurren). Oro har, datuek erakusten dutenez, ibilgailu pribatuarekin lotutako alderdiek askoz ere eragin handiagoa dute gizonengan, seguru asko, garraio mota hori gehiago erabiltzen dutelako.



KONTSUMO-OHITUREN ARTEAN, ETXeko ENERGIA ETA URA AURREZTEKO PRESTASUNA AGERTZEN DUTE HERRITARREK, BATEZ ERE

26. GRAFIKOA: ZURE KONTSUMO-OHITURAK ALDATZEKO PREST EGONGO ZINATEKE HELBURU HAUETAKO BAT BETETZEKO?



Iturria: Ihobe 2007.




3. INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN PRODUKTUEN ESKURAGARRITASUNA

3.1. Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak eskuratzeko erraztasun-maila

Herritarren % 63ren ustez, zaila da edo ez da batere erraza ingurumena errespetatzen duten produktuak aurkitzea. % 31ren ustez, berriz, oso edo nahiko erraza da produktu horiek aurkitzea. Beraz, herritar gehienak kontsumo-ohiturak aldatzeko prest egon arren, EAEko herritarren zati handi batek zailtasunak ditu produktu horiek aurkitzeko.

IA HIRU PERTSONATIK
BIK DIOTE
ZAILTASUNAK
DITUZTELA INGURUMENA
ERRESPETATZEN
DUTEN PRODUKTUAK
AURKITZEKO

27. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, INGURUMENA GEHIEN ERRESPETATZEN DUTEN PRODUKTUAK AURKITZEKO OSO ERRAZA DA, NAHIKO ERRAZA DA, EZ DA ERRAZA EDO EZ DA BATERE ERRAZA?



Iturria: Ihobe 2007.

3.2. Produktu eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko erraztasuna


Herritarren % 76k diote erraza egiten zaiela elektrizitatearen kontsumoa aurrezteko produktuak aurkitzea (kontsumo baxuko bonbillak...). % 71ek, berriz, erraz aurkitzen dituzte garraio publikorako zerbitzu egokiak. Bestalde, herritarren % 21ek eta % 26k, hurrenez hurren, arazoak dituzte arlo horretako produktuak eta zerbitzuak aurkitzeko.

Herritarren % 40rentzat ez da erraza etxeko uraren kontsumoa aurrezteko produktuak aurkitzea (komuneko tangak, barreiatzaileak...). Bestalde, herritarren erdiak baino gehiagok dio zailtasunak dituela kontsumo baxuko ibilgailuak (% 53) eta elikagai ekologikoak aurkitzeko (% 57).

Generoa kontuan hartuta, kontsumo baxuko ibilgailuak aurkitzeko erraztasunaren arloan daude desberdintasun handienak. Hala, gizonen ehunekoa 11 puntu handiagoa da emakumeena baino (% 40 eta % 29, hurrenez hurren). Halaber, gizonezkoek emakumeek baino erraztasun handiagoa adierazten dute uraren kontsumoa aurrezteko produktuak aurkitzeko (% 57 eta % 49, hurrenez hurren).

HERRITARREN USTEZ,
ARLO HAUETAN DITUZTE
ERRAZTASUN GEHIENAK:
ETXEKO ENERGIA-
KONTSUMOA
AURREZTEKO
PRODUKTUAK LORTZEKO
ETA GARRAIO
PUBLIKOKO ZERBITZUAK
ERABILTZEKO

28. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ERRAZA DA ALA EZ DA ERRAZA URAREN KONTSUMOIA ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOIA AURREZTEA ETA GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZU EGOKIAK, ELIKAGAI EKOLOGIKOAK ETA KONTSUMO BAXUKO IBILGAILUAK AURKITZEA?




3.3. Produktuen etiketan ingurumenari egindako kalteari jarritako arreta

la 10 pertsonatik 7k arreta gutxi jartzen die edo ez die batere arretarik jartzen produktuen ingurumen-inpaktuari buruzko etiketei. Herritarren % 31k, berriz, arreta jartzen dio ezaugarri horri.

Bilakaeraren ikuspegitik, produktuen ingurumen-etiketari gutxitan edo inoiz ere begiratzen ez duten pertsonen kopurua hazi egin da. Gainera, horien artean, inoiz ere begiratzen ez duten pertsonen ehunekoaren hazkundera nabarmendu behar da (% 31), 2004ko ehunekoa baino 9 puntu handiagoa baita. Hala, 2001-2004an erregistratutako joera egiaztatu da.

PRODUKTUEN INGURUMEN-ETIKETEI ARRETA GUTXIAGO JARTZEN ZAIE

29. GRAFIKOA: ZENBATERAINO BEGIRATZEN DUZU EROSITAKO PRODUKTUEK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINARI BURUZKO ETIKETAREN BAT OTE DUTEN?



KLIMA ALDAKETA




1. KLIMA-ALDAKETAREN EXISTENTZIA ETA KAUSAK

1.1. Klima-aldaketaren existentziaren gaineko adostasun-maila

15 urte baino gehiago dituzten EAEko 4 biztanletik 3k diote klima-aldaketa gertatzen ari dela. Herritarren % 39 oso ados daude baieztapen horrekin. Herritarren % 19k, berriz, uste txikia dute edo ez dute uste klima-aldaketa gertatzen ari denik.

**ORO HAR,
JENDEAK USTE DU
KLIMA-ALDAKETA
GERTATZEN ARI DELA**

30. GRAFIKOA: ZENBATERAINO ZAUDE ADOS KLIMA-ALDAKETA GERTATZEN ARI DELA DIOTENEKIN?




Iturria: Ihobe 2007.

1.2. Klima-aldaketaren kausak

EAEko 10 biztanletik 7ren ustez, industrien sortutako poluzioa da klima-aldaketaren kausa nagusietakoa. % 56k, berriz, ibilgailuen gas-emisioak aipatzen dituzte (autoak, kamioiak...). Horien ondoren, baso-masaren galera aipatzen dute % 44k (oihanak suntsitzea, baso-mozketa...). Herritar gehienek ustez, etxebizitzetako energia-kontsumoa ez dago klima-aldaketaren kausa nagusien artean.

**INDUSTRIEK
SORTUTAKO POLUZIOA
HARTZEN DA
KLIMA-ALDAKETAREN
KAUSA NAGUSITZAT.
ETXEBIZITZEN
ENERGIA-KONTSUMOA,
ALDIZ, IA EZ DUTE
HARTZEN KLIMA-
ALDAKETAREN
KAUSATZAT**

31. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZEIN DIRA KLIMA-ALDAKETAREN BI KAUSA NAGUSIAK?



Iturria: Ihobe 2007.



2. INGURUMENAK DUEN ERAGINA ETA ERAGITEN DUEN KEZKA


2.1. Gizakiek ingurumenari eragiten dioten inpaktua

**HIRU PERTSONATIK
BIK DIOTE CO₂ EMISIO
GUTXI ERAGITEN
DITUZTELA EDO IA
BATERE EZ. ANTZEKO
PROPORTZIOAREN
ARABERA, EZER GUTXI
EGIN DAITEKE EDO
EZER ERE EZIN DA EGIN
KLIMA-ALDAKETA
MURRIZTEKO**

EAEko pertsona gehienek (% 63) uste dute beren jarduerak eragin txikia duela CO₂ emisioetan (% 53) edo ez duela batere eraginik (% 10). Herritarren herenak, berriz, uste du bere jarduerak eragin handia duela gas-emisioetan. Beraz, esan daiteke EAEko herritar gehienek ez dutela beren burua klima-aldaketaren eragile garrantzitsutzat.

Generoa kontuan hartuta, gizonek emakumeek baino gehiago uste dute CO₂ emisioak (asko edo dezente) eragiten dituztela (% 40 eta % 28, hurrenez hurren). Hipotesi gisa, ibilgailu pribatuaren erabilerari buruzko pertzepzioarekin lotuta egon daiteke hori (pertzepzio hori handiagoa da gizonez artean).


32. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZUK ZEUK ZENBATERAINO ERAGITEN DITUZU CO₂ EMISIOAK (KARBONO DIOXIDOA, KLIMA-ALDAKETA ERAGITEN DUTEN GASAK)? ASKO, NAHIKOA, GUTXI ALA BATERE EZ?



Iturria: Ilobe 2007.

Esandakoa berresteko, EAEko biztanle gehienek (% 63) uste dute klima-aldaketa gutxitzeko eman dezaketen laguntza txikia (% 54) edo hutsala (% 9) dela. Herritarren herenak, berriz, uste du asko (% 6) edo dezente (% 29) lagun dezakeela.

33. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZUK EGINDAKO JARDUEREN BIDEZ, ZENBATERAINO LAGUN DEZAKEZU KLIMA-ALDAKETA MURRIZTEN? ASKO, NAHIKOA, GUTXI ALA BATERE EZ?




Iturria: Ilobe 2007.

2.2. Ingurumenari buruzko kezka

4 pertsonatik 3 baino gehixeagok diote oso edo nahiko kezkatuta daudela EAeko klima-aldaketarekin (% 36 eta % 60, hurrenez hurren). Ehuneko hori bat dator klima-aldaketaren existentziarekin ados dauden pertsonen kopuruarekin. Aitzitik, % 21ek diote arazo horrek gutxi kezkatzen dituela (% 19) edo ez dituela batere kezkatzen (% 2).

LAU PERTSONATIK HIRUK DIOTE OSO EDO NAHIKO KEZKATUTA DAUDELA EAeko KLIMA-ALDAKETARI BURUZ

34. GRAFIKOA: KLIMA-ALDAKETAK EAEN IZAN DEZAKEEN ERAGINAREKIN KEZKATUTA ZAUDE?




Iturria: Ihobe 2007.

2.3. Klima-aldaketak etorkizunean izango duen eragina

Herritarren % 65en ustez, etorkizunean, klima-aldaketak nahiko eragin handia izango du eguneroko bizitzan. 5etik 1ek, berriz, uste du eragin hori handia izango dela. Bestalde, herritarren % 30ek uste du klima-aldaketak eragin gutxi edo batere ez duela izango eguneroko bizitzan (% 22k uste du gutxi izango duela eta % 8k batere ez duela izango).


BOST PERTSONATIK BATEN USTEZ, ETORKIZUNEAN, KLIMA-ALDAKETAK ERAGIN HANDIA IZANGO DU EGUNEROKO BIZITZAN

35. GRAFIKOA: ETORKIZUNEAN KLIMA-ALDAKETAK ZURE EGUNEROKO BIZITZAN ERAGINGO DUELA USTE DUZU?



Iturria: Ihobe 2007.

INGURUMENAK POLITIKA DUEN GARRANTZIA




1. BIZI-KALITATEAN DUEN ERAGINA

EAEko herritarren gehiengoaren ustez (% 73), ingurumenak eragin handia (% 28) edo nahiko handia (% 45) du beren bizi-kalitatean. Ehuneko handixeago baten arabera (% 75), faktore sozialek eragin handia (% 30) edo nahiko handia (% 45) dute beren bizi-kalitatean. Baina, horien gainera, faktore ekonomikoaren eragina aipatzen dute gehien herritarrek: herritarren % 84k dio eragin handia (% 45) edo nahiko handia (% 39) dutela beren bizi-kalitatean.

**EAEKO HERRITARREN
% 73REN USTEZ,
INGURUMENAK ERAGIN
HANDIA DU BEREN
BIZITZA PERTSONALAREN
KALITATEAN**

36. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ONDORENGO ARLOEK ZER ERAGIN DUTE ZURE «BIZI-KALITATEAN»?



Iturria: Ithobe 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment, European Commission 2007.



Datu horiek 2007ko EB27ren datuekin alderatuta, esan behar da Europako biztanle gehienek faktore ekonomikoak aipatzen dituztela (% 84), EAEn bezala. Hala eta guztiz ere, EAEn ez bezala, Europako herritarrek ingurumen-faktoreak gehiago aipatzen dituzte (% 80) faktore sozialak baino (% 76). Hala, ingurumenak bizi-kalitatean eragin handia duela uste duten pertsonen ehunekoa 6 puntu handiagoa da European EAEn baino. Arlo horretan dago alderik nabarmenena.

	HANDIA + NAHIKO HANDIA (%)
EB	80
EAE	72

8. TAULA: Zure ustez, ingurumenaren egoerak zer eragin du zure bizi-kalitatean?

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 295. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2007.


Bestalde, EAEn ingurumenak bizi-kalitatean eragin handia duela uste dutenen ehunekoa Herbeheretakoaren berdina da (% 73), eta Erresuma Batukoaren (% 75) eta Irlandakoaren eta Lituaniakoaren antzekoa (% 76 bi kasuetan).

2. ERABAKITZE-PROZESU POLITIKOETAN DUEN GARRANTZIA

EAEko herritar gehienek ustez, (% 89) politikariek politika klasikoagoei (adibidez, politika ekonomikoak edo sozialak) ematen dieten garrantzia bera eman beharko liokete ingurumenari. Beraz, datu horrek erakusten du ingurumenak garrantzia izan behar duela erakundeetan, EAEko biztanleen ustez.

Ehuneko hori 2004an EB 25en lortutakoa (% 85) baino lau puntu handiagoa da. Hala, EAE Txekiar Errepublikaren, Maltaren edo Eslovakiaren parean dago arlo horretan.

37. GRAFIKOA: POLITIKARIEK POLITIKA EKONOMIKO ETA SOZIALEI EMATEN DIETEN GARRANTZIA BERA EMAN BEHARKO LIOKETE INGURUMENARI?



Iturria: Ihobe 2007.

	BAIEZKOA ERANTZUN DUTENEN % (%)
UE	85
CAPV	89


9. TAULA: Politikariak politika ekonomiko eta sozialei ematen dieten garrantzia bera eman beharko liokete ingurumenari ere?

Iturria: Ilobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.

Lehenago esandakoaren haritik, EAEko 10 pertsonetatik 9ren ustez, estamentu politikoak garrantzia handia (% 52) edo nahiko handia (% 39) eman beharko lioke ingurumen-gaiei beste arlo batzuetan —adibidez, ekonomia eta enplegua— aplikatu beharreko politikak erabakitzeko orduan, eta, horrez gain, ingurumena aldagai estrategiko gisa txertatu beharko litzateke, jarduera instituzionalaren eremu nagusiei buruzko erabaki politikoak —adibidez, ekonomiari eta enpleguari buruzkoak— hartzeko orduan.

POLITIKARIEK POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOEI EMATEN DIETEN GARRANTZIA INGURUMENARI ERE EMAN BEHARKO LIOKETELA USTE DUTEN EAEKO HERRITARREN EHUNEKOA 2004AN EUROPAN JASOTAKOA BAINO LAU PUNTU HANDIAGO DA

38. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, POLITIKARIEK ZENBATERAINO HARTU BEHARKO LITUZKETE KONTUAN INGURUMENAREKIN LOTUTAKO GAIK BESTE ARLO BATZUETAKO POLITIKAK (ADIBIDEZ, EKONOMIA ETA ENPLEGUA) ERABAKITZEKO ORDUAN? ASKO, NAHIKOA, GUTXI ALA BATERE EZ



Iturria: Ilobe 2007.





Europako testuinguruarekin alderatuta, EAEko biztanleek arlo horretan agertutako jarrera 2004an EB 25en erregistratutakoa baino pixka bat handiagoa da (% 88). Antzeko balioak jaso dira Frantzia, Zipren, Estonian eta Hungarian ere (% 91).

	OSO KONTUAN EDO NAHIKO KONTUAN HARTU BEHARKO LITUZKETE ERANTZUN DUTENEN (%)
EB	88
EAE	91

10 TAULA: Zure ustez, politikariek kontuan hartu beharko lituzkete ingurumenarekin lotutako gaiak beste arlo batzuetako politikak –adibidez, ekonomia eta enplegua– erabakitzeko orduan?

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.


Grafiko honetan ikusten da herrialdeen artean zer desberdintasun dauden ingurumenak pertsonen bizi-kalitatean duen eraginari ematen zaion garrantzia (eragin «handia» edo «nahiko handia» dutela diotenen ehunekoa dago adierazita). Halaber, politikariek ekonomiaren edo enpleguaren gisako gaietan erabakitzeko orduan ingurumena kontuan hartu beharko luketela uste duten herrialdeen arteko aldeak ikusten dira («oso kontuan» edo «nahiko kontuan» hartu beharko luketela uste dutenek ehunekoa ageri da grafikoan).

Hala, bi iritzi horien artean harreman estua dagoela ikusten da: ingurumenak bizi-kalitatean eragin handia duela uste duten herrialdeetan, joera handiagoa dago esateko politikariek ingurumen-gaiak kontuan hartu beharko lituzketela beste alor batzuetako erabaki politikoak hartzeko orduan.

EAEko batezbestekoa 2004ko EB 25ekoaren gainetik dago bi arloetan, Frantzia, herrialde eskandinaviarretan eta beste hainbat estatu-kide berritan bezala.



39. GRAFIKOA: INGURUMENAK BIZI-KALITATEAN ERAGIN HANDIA EDO NAHIKO HANDIA DUELA USTE DUTEN PERTSONEN ETA BESTE ARLO BATZUETAKO POLITIKEI BURUZKO ERABAKIAK —ADIBIDEZ, EKONOMIA ETA ENPLEGUA— HARTZEKO ORDUAN POLITIKARIEK INGURUMENA OSO KONTUAN EDO NAHIKO KONTUAN HARTU BEHARKO LUKETELA USTE DUTEN PERTSONEN ARTEKO KONPARAKETA, HERRIALDEEN ARABERA



Politikariek kontuan hartu beharko lituzkete ingurumenarekin lotutako gaiak beste arlo batzuetako politikak (adibidez, ekonomia eta enplegua) erabakitzeko orduan (%)

Iturria: Ihobe 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.

INGURUMENAREN ARLOKO PROPOSAMENAK ETA NEURRIAK



1. INGURUMEN-EGOERARI ETA ERAGILE POLUITZAILEEI BURUZKO PERTZEPZIOA

Herritarren ustez, azken urteetan, ingurumen-egoerak hobera egin du, batez ere, udalerrietan (% 49) eta, ondoren, EAEn (% 41). Bestalde, herritarren % 10ek bakarrik uste du ingurumenaren egoerak hobera egin duela munduan. Hain zuzen, herritar gehienek uste dute (10 pertsonatik 6) munduko ingurumen-egoerak okerrera egin duela.


AZKEN URTEETAN, BEHERA EGIN DU UDALEKO, EAEKO EDO MUNDUKO INGURUMENAREN EGOERA HOBETU EGIN DELA USTE DUTENEN PROPORZIOAK

1.1. EAE-ko ingurumen-jardueren nahikotasun-maila

Datuen arabera, EAEko herritar gehienek ustez (10 pertsonatik 6), EAEn behar baino gutxiago egiten da ingurumenaren arloan. Gainera, bilakaeraren ikuspegitik, 2004tik 2007ra, ikuspegi kritikoa agertzen duten pertsonen segmentua 12 puntu handiagoa da. Horrekin batera, murriztu egin da nahikoa egiten dela uste dutenen ehunekoa (13 puntu gutxiago) eta nahikoa baino gehiago egiten dela uste dutenena (3 puntu). Hala, 2001 eta 2004 artean arlo horretan egindako lanari buruzko balorazio positiboaren hazkunderako joera geratzen ari da.

GERO ETA HERRITAR GEHIAGOK USTE DUTE EAEN EZ DELA NAHIKOA EGITEN INGURUMENAREN ARLOAN

44. GRAFIKOA: ONDORENGO ERAGILETATIK ZEIN DA EAEKO INGURUMEN-POLUZIO HANDIENA SORTZEN DUENA?



Iturria: Ihobe 2001, 2004, 2007.

(1) Datuak aurreko edizioetako datuekin alderatzeko, «ibilgailu pribatua» eta «beste garraioak batzuk» erantzunei dagozkien emaitzak bateratu egin dira.

(2) 2001eko Ekobarometroan ez zen erantzun hori aipatzen.





**GERO ETA HERRITAR
GUTXIAGOK USTE DUTE
ERABAKITZE-GUNE
HURBILENAK (UDALA,
PROBINTZIA ETA
BAITA AUTONOMIA
ERKIDEGOIA ERE)
DIRELA EGOKIENAK
INGURUMENARI
BURUZKO ERABAKIAK
HARTZEKO**

10 pertsonatik 6ren ustez, fabrikak dira EAEko ingurumen-poluzioaren eragile nagusiak. Horien ondoren, tarte handiarekin, garraiobideak aipatzen dituzte (% 19) eta, hirugarrenik, herritarrek (% 7) eta eraikuntza-entresak (% 6).

Bilakaeraren ikuspegitik, oso oszilazio txikiak izan dira azken urteetan, eta, beraz, herritarrek EAEko ingurumen-poluitzaile nagusiei buruz dituzten pertzepzioak ez da ia aldatu 2004tik.

2. INGURUMEN-ARAZOAK KONPONTZEKO ERABAKITZE-MAILAK ETA NEURRIAK

2.1. Ingurumena babesteari buruzko erabakiak hartzeko mailarik egokienak


2004-2007 epealdian, aldaketa handia izan da ingurumenari buruzko erabakiak hartzeko maila egokienei buruz EAEko herritarrek duten iritzian. Hala, asko hazi dira erabaki horiek autonomia gaindikoa mailetan hartu beharko lirakeela uste dutenen ehunekoak, eta, aldiz, behera egin dute maila administratibo hurbilenak egokiagotzat dituztenak.

Bilakaera horren ondorioz, 2007an, herritar gehienek ustez, EB da lurralde-mailarik egokiena erabaki horiek hartzeko (% 39), ondoren, udala (% 37) eta, azkenik, autonomia erkidegoa (% 30).

Hala, mailarik hurbilenei lehentasuna ematen dieten pertsonen ehunekoak beherakada handia izan du: Udal-mailak 29 puntu egin du behera, probintziak 17 puntu eta autonomia erkidegoak 6. Aldiz, EBri lehentasuna ematen dieten pertsonen ehunekoak 18 puntu egin du gora, NBE aipatzen dutenen ehunekoak 12 puntu eta estatuak 4.

Azkenaldian, ingurumenari buruzko gaiei nazioarteko izaera handiagoa ematen zaie konunitateari (hondamendiak, klima-aldaketa), eta, ziur aski, bilakaera hori ikuspegi horrekin lotuta dago.

45. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, ZEINTRUK DIRA INGURUMENA BABESTEARI BURUZKO ERABAKIAK HARTZEKO BI MAILARIK EGOKIENAK?



Iturria: Ithobe 2004, 2007.



Generoa kontuan hartuta, ikusten da emakumeek gizonek baino gehiago baloratzen dituztela erabakitze-gune hurbilenak, aldeak txikiak diren arren. Hala, udal-mailari lehentasuna ematen dieten emakumeen ehunekoa EB aipatzen dutenena baino pixka bat handiagoa da (% 38 eta % 37 hurrenez hurren). Gizonen artean, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: % 41ek EB aipatzen du eta % 36k udala. Halaber, emakumeek probintzia-maila Nazio Batuen aurretik jartzen dute (% 24 eta % 22, hurrenez hurren). Gizonek, berriz, alderantzizko iritzia dute (% 25ek Nazio Batuak aipatzen dituzte eta % 22k probintzia).

Europako testuinguruarekin alderatuta, EAEn gehiago aipatzen da erabakiak EBn, autonomia erkidegoan eta NBEn hartu behar direla. Estatuari, ostera, garrantzi gutxiago ematen diote. Batasuneko herrialdeetan, aldiz, estatua aipatzen dute gehien EBrekin batera.

EAEn, erabakitze-gune egoki gisa EBri lehentasuna ematen dioten pertsonen ehunekoa herrialde hauetan erregistratutakoaren berdina edo oso antzekoa da: Hungaria (% 40), Suedia (% 41) edo Luxenburgo (% 39).

	Estatua	Europako Batasuna	Tokiko erakundeak	Eskualdeko erakundeak edo autonomia erkidegoa	Nazio Batuak (NBE)
EB 15	34	34	23	22	17
EB 25	33	33	28	22	16
EAE	20	39	30	30	23

11. TAULA: Zure ustez, zeintzuk dira ingurumena babesteari buruzko erabakiak hartzeko mailarik egokienak (%)

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.

Oharra: EBko herrialdeekin konparaketa egin ahal izateko, EAEn kasuan, «tokiko erakundeak» atalari dagokion datua lortzeko, udal-mailaren eta probintzia-mailaren arloan lortutako datuen batezbestekoa egin da.

2.2. Ingurumen-arazoak konpontzeko neurririk eraginkorrenak

Herritarren % 62ren ustez, ingurumenari buruzko kontzientzia orokorra handitzea da ingurumen-arazoak konpontzeko modurik eraginkorrena. Bestalde, herritarren % 58ren ustez, poluzioaren eragileei isun handiak aplikatuko dizkien lege zorrotzagoak egitea da eraginkorrena. Neurri horien ondoren, legeria hobeto aplikatzea (% 47) eta soilik ingurumen-arazoaren eragileei zergak ordainaraztea (% 40) aipatzen dituzte.

Datuak generoaren arabera aztertuta, emakumeek gizonek baino gehiago uste dute isun handiak aplikatzeko lege zorrotzagoak egin behar direla (% 61 eta % 56, hurrenez hurren). Gizonek, berriz, indarrean dagoen legeria hobeto aplikatzea (% 50 eta % 44, hurrenez hurren) eta eragile poluitzaileei pizgarri ekonomiko gehiago ematea (% 28 eta % 20, hurrenez hurren) azpimarratzen dute.


Bilakaeraren ikuspegitik, gaur egungo egoera 2004koaren antzekoa da. Hauek dira alderik nabarmenenak:

- Neurri hauei buruzko ehunekoetan hazkunde txiki bat erregistratu da (puntu bat baino gehiago): eragile poluitzaileei pizgarri ekonomiko gehiago ematea (+% 6), ingurumen-legeriaren aplikazioa hobetzea (+% 3), GKEei eta elkarte ekologistei erabakitzeke ahalmen gehiago ematea (+% 2).
- Neurri hauen ehunekoetan, aldiz, murrizketa txiki bat izan da (puntu bat baino gehiago): zergak poluzioaren eragileei bakarrik ordainaraztea (-% 4), industriaren eta nekazaritzaren ekimenetan konfiantza izatea (-% 2).

HERRITARREN USTEZ, INGURUMENAREN ALDE KONTZIENTZIATZEA ETA LEGE ZORROTZAGOAK EGITEA DIRA INGURUMEN-ARAZOAK KONPONTZEKO NEURRIK ERAGINKORRENAK. BI NEURRI HORIEK 2004KO EUROPAKO BATEZBESTEKOA BAINO GEHIAGO AZPIMARRATZEN DITUZTE



46. GRAFIKOA: ZEIN IZANGO LIRATEKE HIRU NEURRIK ERAGINKORRENAK INGURUMEN-ARAZOAK KONPONTZEKO?



Iturria: Ihobe 2004, 2007.

2004ko EB 25eko batezbestekoarekin alderatuta, EAEko herritarrek garrantzi handiagoa ematen diote ingurumenari buruzko kontzientzia handitzeari (18 puntu gehiago). Danimarkan (% 57), Zipren (% 59) eta Eslovenian (% 67) antzeko ehunekoak jaso dituzte. Halaber, EAEko herritarrek gehiago aipatzen dute eragile poluitzaileei multa handiak aplikatzeko lege zorrotzagoak egin behar direla (12 puntu gehiago) —Maltaren (% 59) eta Herbehereen (% 57) parean— eta GKEei eta elkarte ekologistei erabakitzeko ahalmen handiagoa eman behar zaiela (8 puntu gehiago) —Alemaniaren (% 33) eta Greziaren (% 29) parean—.

	Poluzioaren eragileei multa handiak jartzeko lege zorrotzagoak egitea	Ingurumen-legeriaren aplikazioa hobetzea	Ingurumenari buruzko kontzientzia handitzea	Zergak ingurumen-arazoak sortzen dituztenei bakarrik ordainaraztea	Industriari, merkatariei eta herritarrei pizgarri ekonomiko handiagoak ematea	GKEei eta elkarte ekologistei ahalmen handiagoa ematea ingurume babesteari buruzko erabakiak hartzeko	Industriaren, nekazarien... ekimenetan konfiantza izatea	Persona guztiak gehiago ordainaraztea zerga, prezio etab.-en bidez, horrekin ingurumen-kostuak estaltzeko
EB 15	45	45	46	34	25	23	10	7
EB 25	46	45	44	35	25	23	9	7
EAE	58	47	62	40	24	31	10	8

12. TAULA: Zure ustez, zeintzuk dira 3 neurriak eraginkorrenak ingurumen-arazoak konpontzeko? (%)

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.


3. INGURUMEN-ARAZOAK ETA -IRTENBIDEAK

3.1. Ingurumen-arazoen eta -irtenbideen ezagutza

EAEko herritarren erdiak baino gehixeagok (% 54) dio gehiago jakin nahiko lukeela irtenbideei buruz ingurumen-arazoei buruz baino. Arazo horiek konpontzeko bideak ezagutzeko nahiak erakusten du jendea jarduteko prest dagoela. Bat-batean galdetuta, lau pertsonatik batek dio arazoak bezainbeste ezagutu nahiko lituzkeela irtenbideak. Herritarren % 9k bakarrik agertu du interes handiagoa ingurumen-arazoei buruzko jakiteko.

JENDEAK GEHIAGO JAKIN NAHI DU INGURUMENAREN ARLOKO IRTENBIDEEI BURUZ ARAZOEI BURUZ BAINO. JENDEA JARDUTEKO PREST DAGOELA ERAKUSTEN DU HORREK, NOLABAIT

47. GRAFIKOA: ZERI BURUZ NAHIKO ZENUKE JAKIN GEHIAGO, INGURUMEN-ARAZOEI BURUZ ALA INGURUMEN-IRTENBIDEEI BURUZ?



Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.

Arlo horretan, EAEko herritarren iritzia eta 2004an EB 25en jasotakoa oso antzekoak dira. Dena den, gure kasuan, ehuneko txikiagoak agertzen du interesa ingurumen-arazoengatik. EAEko herritarren iritziaren antzekoa jaso dute Luxenburgon, Alemanian, Eslovakian eta Herbeheretan.

	Ingurumen-irtenbideei buruz gehiago	Biei buruz	Ingurumen-arazoei buruz gehiago
EB 15	55	24	14
EB 25	55	23	14
EAE	54	25	9

13. TAULA: Zeri buruz nahiko zenuke jakin gehiago, ingurumen-arazoei ala -irtenbideei buruz? (%)

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission, 2004.



**INGURUMENA
BABESTEKO EKINTZA
HAUEK EGITEKO
PRESTASUNA AGERTZEN
DU JENDEAK, BATEZ
ERE: HONDAKINAK
SAILKATZEA BIRZIKLATU
AHAL IZATEKO, GARRAIO
PUBLIKOA AHALIK
GEHIEN ERABILTZEA
ETA ETXEKO ENERGIA-
KONTSUMOA
MURRIZTEA. EKINTZA
HORIEK GUZTIAK
2004KO EUROPAKO
BATEZBESTEKOAREN
GAINETIK DAUDE**

3.2. Ingurumena babesteko ekintzak egiteko prestasuna


EAEko herritarren gehiengoak (% 78) dio, ingurumena babestearen alde, prest egongo litza-tekeela hondakinak/zaborra sailkatzeko, ondoren, birziklatu ahal izateko. Horren ondoren, herritarrak prest agertzen dira, ibilgailu pribatuaren ordezt, garraio publikoa erabiltzeko (% 59) eta, hirugarrenik, etxeko energia-kontsumoa murrizteko (elektrizitatea, berokuntza... (% 52). Bestalde, ekintza hauek lortu dituzte ehuneko txikiak: ingurumena babesten laguntzeko zerga gehiago ordaintzea (% 4) eta autoa ez edukitzea (% 11).

Datuak generoaren arabera aztertuta, emakumeek prestasun handiagoa agertzen dute, ibilgailu pribatuaren ordezt, garraio publikoa erabiltzeko (emakumeen % 62k eta gizonen % 56k). Horretan dago gizonen eta emakumeen arteko alderik handiena.

EAEko egoera 2004an Europan jasotakoarekin alderatuta, alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Oro har, EAEn ekintzak egiteko prest agertzen diren pertsonen ehunekoak EB 25ekoak baino handiagoak dira, salbuespen hauekin: gastu handiak egitean ingurumen-alderdiak kontuan hartzea (autoa erostea, berokuntza-sistema, etxebizitza eraikitzea...) (EB 25en 9 puntu altuagoa); egunero kontsumitzeko produktu ekologikoak erostea garestiagoak izan arren (EB 25en 4 puntu gehiago); eta ingurumena babesteko zerga gehiago ordaintzea (puntu bat gehiago).
- Ekintzen ranking-ari dagokionez, hondakinak sailkatu, eta, hala, birziklatu ahal izateko agertzen dute prestasun handiena bi kasuetan. Dena den, EB 25en, neurri hori aipatzen duten pertsonen (% 72) eta ondorengo neurriaren (etxeko energia-kontsumoa murriztea) arteko aldea 33 puntukoa da. EAEn, berriz, lehenengo neurriaren eta ondorengo bien arteko aldeak txikiagoak dira.

48. GRAFIKOA: ONDORENGO EKINTZEN ARTETIK, ZEIN HIRU EGINGO ZENITUZKE INGURUMEN BABESTEN LAGUNTZEKO?



Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission, 2004.

EAEEn hondakinak birziklatzeko prest dauden pertsonen ehunekoa (% 78) 2004an EB 25en erregistratutakoa baino 6 puntu handiagoa da. Hala, Frantzia (% 79), Portugal (% 78) eta Irlandaren (% 80) parean gaude arlo horretan. Bestalde, EAEko herritarrek garraio publikoa erabiltzeko agertzen duten prestasuna (% 59) Europako beste edozein herrialdetakoa baino askoz ere handiagoa da (Grezia da gertuen dagoena: % 50). Etxebizitzako energia-kontsumoa murrizteko prest dauden ehunekoa, berriz, (% 52) horretarako prestasun handiena agertzen duten herrialdeen parekoa da: Herbehereak (% 54) eta Alemania (% 50).

	Hondakinak/zaborra sailkatzea birziklatu ahal izateko	Etxeko energia-kontsumoa murriztea (elektritzitatea, berokuntza, exhetresia elektrikoak...)	Hondakinak/zaborrak murriztea produktu kontzentratuak, bigarren eskuak... erosituz	Eguneroko beharretarako produktu ekologikoak erostea, gehiago ordaindu behar izan arren	Ibigailu pribatuaren ordeez garraio publikoa ahalik gehien erabiltzea	Gastu handiak egitean (autoa erostea, berokuntza, etxebizitza) ingurumen-aldertiak kontuan hartzea	Autorik ez edukitzea	Ingurumena babesten laguntzeko zerga gehixeago ordaintzea
EB 15	72	42	31	29	31	25	8	6
EB 25	72	39	32	31	30	24	8	5
EAE	78	52	33	27	59	15	11	4

14. TAULA: Ondorengo ekintzen artetik, zein 3 egingo zenituzke ingurumena babesten laguntzeko? (%)

Iturria: Ihobe, 2007. Special Eurobarometer 217. The attitudes of European citizens towards environment. Directorate General Environment. European Commission. 2004.



ONDORIOAK



1. EAEn GEROZ ETA PERTSONA GEHIAGOK EMATEN DIOTE LEHENTASUNA INGURUMENA BABESTU ETA ZAINTEARI

EAEn geroz eta pertsona gehiagok ematen diote lehentasuna ingurumena babestu eta zaintzeari. 2004ko Ekobarometroan bezala, lehentasunezko helburuen rankingeko 4. lekuan jarraitzen du (aberastasuna sortzeko eta enplegua hazteko, pobrezia murrizteko eta gatazka politiko eta soziala gutxitzeko helburuen ondoren). Dena den, helburu hori adierazi duten pertsonen ehunekoa % 7tik % 12ra pasatu da. EAEko biztanleen ustez, ingurumena da datozen 10 urteetako helbururik garrantzitsuenaren. Gaur egun, biztanleen % 26k uste dute hori; 2004an, berriz, % 19k.

2. EAEko HIRU PERTSONATIK BATEK INGURUMENAREKIKO KEZKA HANDIA ADIERAZTEN DUTE

Ingurumenari ematen zaion garrantzia hazten ari den bezala, arazo horren gaineko kezka adierazten duten pertsonen ehunekoa ere etengabe hazten ari da. **Bilakaeraren ikuspuntutik, azpimarratu behar da kezka handia adierazten duten pertsonen kopurua etengabe hazi dela. Hala, 2001ean, 2004an eta 2007an, kolektibo hori % 25etik % 30era eta % 33ra pasatu da.** Beraz, EAEko hiru pertsonatik batek ingurumenarekiko kezka handia adierazten dute. Hala eta guztiz ere, gizartearen sentsibilizazioan izandako hazkunde hori ez da zuzenean islatzen elkarte ekologistetako edo naturaren babeserako taldeetako kideen hazkundean. Izan ere, elkarte horietan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa % 2koa da, 2004ko Ekobarometro Sozialean erregistratutako datua baino puntu bat gutxiago.

3. EAEko BIZTANLEAK INGURUMENAREN ARLOAN GEHIEN KEZKATZEN DITUEN GAIA KLIMA-ALDAKETA DA

Gaur egun, EAEko biztanleak ingurumenaren arloan gehien kezkatzen dituen gaia klima-aldaketa da: galdetutako pertsonen % 63k aipatu dute gai hori. Gai horren ondoren, uraren poluzioa eta pertsonen eragindako hondamendiak aipatzen dituzte biztanleen % 52k eta % 51k, hurrenez hurren. Hirugarrenik, hondamendi naturalak eta biodibertsitatea galtzea adierazi dituzte (% 42 eta % 41, hurrenez hurren). **Egoera hori 2007ko EB 27koarekin alderatuz gero, bi kezka nagusiak berdina direla ikusten da: lehenengo, klima-aldaketa aipatzen da (% 57) eta, bigarrenik, uraren poluzioa (% 42).** EAEko biztanleek, ordea, kezka handiagoa agertzen dute biodibertsitatearen galeraren aurrean (EB 27n baino 18 puntu gehiago). Aldiz, Europan, kezka handiagoa eragiten du produktu kimikoek osasunean duten eraginak (EAEn baino 8 puntu gehiago).

4. EAEko LAU BIZTANLETIK HIRUK DIOTE KLIMA-ALDAKETA GERTATZEN ARI DELA

EAEko lau biztanletik hiruk diote klima-aldaketa gertatzen ari dela. **Horrez gain, ehuneko bera oso arduratuta edo nahiko arduratuta dago arazo hori dela eta, eta % 65ek uste dute fenomeno horrek asko eta nahiko eragingo diela etorkizunean.** Biztanleen % 71ren ustez, industriek sortutako poluzioa da klima-aldaketaren eragilerik handienetako bat. % 56k, berriz, ibilgailuen emisioak aipatzen dituzte. Bestalde, biztanleen % 63k uste dute CO₂ emisioen sorkuntzan gutxi eragiten dutela edo batere ez dutela eragiten eta klima-aldaketaren eraginak txikitzeko oso gutxi (edo ezer ez) egin dezaketela. Beraz, batetik, EAEko biztanleek kezka handia ager-





tzen dute klima-aldaketaren aurrean eta, etorkizunean, arlo pertsonalean izango dituen eraginaren aurrean, baina, bestetik, ez diete garrantzi askorik ematen eragin hori txikitzeko egin ditzaketen jarduerari, baina ez dute barneratzen arazo hori konpontzeko duten erantzukizuna, eta hirugarrenei egozten diete.

5. EAEko BIZTANLEEN GEHIENGOAK (% 61) USTE DU, ORO HAR, INFORMAZIO ASKO EDO NAHIKOA DUELA

EAEko biztanleen gehiengoak (% 61) uste du, oro har, informazio asko edo nahikoa duela ingurumen-arazoei buruz. 2007an erregistratutako pertzepzio hori handiagoa da EB 27koa baino (% 55). Hala, Luxenburgoren (% 63), Frantziaren (% 61) eta Irlandaren (% 59) parean jarri gara. EAEko biztanleen ustez, gai hauei buruzko informazioan daude hutsunerik handienak: genetikoki eraldatutako organismoak (% 48) eta produktu kimikoek osasunean duten eragina (% 44). Informazio-hutsune berak adierazten dituzte EB 27ko biztanleek ere. Bestalde, hauek dira ingurumenari buruzko EAEko informazio-iturri nagusiak: telebistako albistegiak (% 78) eta egunkariak (% 68). Horiek dira iturri nagusiak EB 27n ere. Telebistaren kasuan, EAEko ehuneko Danimarkakoaren berdina da, eta, egunkarien kasuan, Finlandiako eta Suediako datuen parean gaude. Bestalde, EAEn irratia gehiago erabiltzen da EB 27n baino (Europako batezbestekoa baino 22 puntu gehiago). Europan, aldiz, filmek eta telebistako dokumentalek eragin handiagoa dute (EAEn baino 9 puntu gehiago). Hain zuzen, gehien erabiltzen diren komunikabideekiko (telebista, egunkariak eta irratia) konfiantza agertzen dute EAEko biztanleek ingurumenari buruzko gaietan.

6. LAU PERTSONATIK HIRUK DIO INGURUMENA ZAINTEKO AHALEGIN HANDIA EDO NAHIKOA EGITEN DUELA

EAEko biztanleen % 73 prest egongo litzateke produktu baten truke gehiago ordaintzeko, produktu horrek poluzio gutxiago sortuko balu. Halaber, biztanleen gehiengoak (lau pertsonatik 3k) dio ingurumena zaintzeko ahalegin handia edo nahikoa egiten duela. 2004an, EB 25eko biztanleen % 85ek horrela jokatzeko zuten askotan edo batzuetan. Ingurumenaren alde ahalegin txikia egiten dutela edo batere ahaleginik ez dutela egiten diotenen (% 25) jokaera horrek dituen eragozpenak (denbora, kostua...) aipatzen dituzte arrazoi nagusi gisa. 2004ko EB 25en arabera, berriz, poluitzaile handiek (enpresak, industria) berdin jokatzeko jarraitzen badute, ahalegin pertsonalek eragin txikia dutela aipatzen dute, batez ere. 2004an Europan gertatu zen bezala, EAEn ere, pertsona eszeptikoen biztanleria-segmentua oso garrantzitsua da (% 43). Segmentu hori osatzen dutenek diote ingurumena babesteko ahalegin handia edo nahiko handia egiten dutela, baina ahalegin hori ia hutsala dela, beste eragile batzuek (poluitzaile handiek, beste pertsonak) ez badute berdin jokatzeko.

7. BIZTANLEEN % 65 BAINO GEHIAGO PREST DAUDE ARLO HORIEKIN LOTUTAKO KONTSUMO-OHITURAK ALDATZEKO.

EAEko biztanleriaren % 54k dio informazio asko edo dezente duela ingurumenaren aldetik egokia den moduan kontsumitzeko. Zehazki, biztanleriaren % 85ek uste du informazio nahikoa duela garraio publikoa erabiltzeko, % 82k energia elektrikoaren kontsumoan aurrezteko eta % 71k uraren kontsumoan aurrezteko. Aldiz, biztanleriaren % 53k dio ez duela informaziorik erregai-kontsumo txikiko ibilgailuak erosteko edo elikagai ekologikoak kontsumitzeko. Jasotako informazioa alde batera utzita, biztanleen % 65 baino gehiago prest daude arlo horiekin lotutako



kontsumo-ohiturak aldatzeko. **Horien artean, bereziki azpimarratu behar dira energia elektrikoaren kontsumoa eta uraren kontsumoa aurrezteko ohiturak aldatzeko prest daudenak (% 96 bi kasuetan) eta garraio publikoa erabiltzeko prest daudenak (% 84).** Esan beharra dago emakumeek gizonezkoek baino jarrera hobea adierazten dutela garraio publikoa erabiltzeko (emakumeen % 89 eta gizonezkoen % 79). Hala eta guztiz ere, biztanleriaren % 63ren arabera, zaila da edo ez da batere erraza ingurumena errespetatzen duten produktuak aurkitzea. Zehazki, biztanleriaren % 50-60k dio zaila gertatzen zaiola produktu ekologikoak eta erregai-kontsumo txikiko ibilgailuak aurkitzea.



8. **BIZTANLERIAREN % 89REN USTEZ, POLITIKARIEK POLITIKA EKONOMIKO EDO SOZIALEI EMATEN DIETEN GARRANTZI BERA EMAN BEHARKO LIOKETE INGURUMENARI**

Biztanleriaren % 89ren ustez, politikariek politika ekonomiko edo sozialei ematen dieten garrantzi bera eman beharko liokete ingurumenari. Ehuneko handiago baten arabera (% 91), klase politikoak garrantzi handia edo nahikoa eman beharko lioke arazo horri ekonomiaren eta enpleguaren arloko erabakiak hartzeko orduan. Arlo horretan, 2004ko EB 25en batezbestekoaren gainetik dago EAE; Hungaria, Estonia, Frantzia edo Suediaren gisako herrialdeen parean. **EAEko biztanleen % 73ren ustez, ingurumenak asko edo dezente eragiten du bizi-kalitatean.** Arlo horretan, 2007ko EB 27ren batezbestekoaren azpitik gaude (% 80), eta Herbehereen, Erresuma Batuen eta Irlandaren pareko ehunekoak ditugu.

9. **EHUNEKOEI BEGIRATUZ GERO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAUDE INGURUMEN EGOERA HOBETU EGIN DELA IRIZTEN DUTEN BIZTANLE GEHIEN (% 49)**

Ehunekoei begiratu gero, Euskal Autonomia Erkidegoan daude ingurumen egoera hobetu egin dela irizten duten biztanle gehien (% 49). Udalerrri mailan, % 41 da uste horretakoa, eta % 58ren aburuz, berriz, mundu mailan okerrera egin du ingurumen egoerak.

10. **GERO ETA JENDE GEHIAGOK USTE DU INGURUMENARI BURUZKO ERABAKIEK GLOBALAK ETA BATERATUAK IZAN BEHAR DUTELA**

Biztanleriaren % 58ren arabera, fabrikak dira EAEko poluzioaren eragile nagusia, eta, horien ondoren —askoz ere indar gutxiagorekin—, garraioa (% 19). Datu horiek aurreko Ekobarometroetako ia berdinak dira. Bestalde, Europako Batasuna eta udalak dira ingurumena babestearen arloko erabakiak hartzeko administrazio-mailarik egokienak (hurrenez hurren, % 39k eta % 37k uste dute hori). Alde horretatik, asko aldatu da 2004an EAEko biztanleriak adierazi zuen iritzia. Izan ere, sistematikoki hazi da autonomiaz gaindiko organo erabakitzaileei (Europako Batasuna, NBE, estatua) emandako garrantzia eta, aldi berean, gertueneko administrazio-mailei emandakoa gutxitu da (udalak, autonomia erkidegoak eta probintziak). Azken finean, gero eta jende gehiagok uste du ingurumenari buruzko erabakiek globalak eta bateratuak izan behar dutela. 2004an iritzi bera zuten, adibidez, Luxenburgoko edo Suediako biztanleek.



11. **EAEko BIZTANLERIAREN USTEZ, HAUEK DIRA INGURUMEN-ARAZOAK KONPONTZEKO HIRU NEURRI ERAGINKORRENAK: BATETIK, INGURUMENAREN GAINEKO KONTZIENTZIA OROKORRA HANDITZEA (% 62), POLUZIOAREN ERAGILEEI ISUN HANDIAK JARRIKO DIZKIETEN LEGE ZORROTZAGOAK EGITEA (% 47) ETA INGURUMEN-LEGERIA HOBETO APLIKATZEA (% 47)**

Beste behin ere, EAEko biztanleriaren ustez, hauek dira ingurumen-arazoak konpontzeko hiru neurri eraginkorrenak: batetik, ingurumenaren gaineko kontzientzia orokorra handitzea (% 62), poluzioaren eragileei isun handiak jarriko dizkieten lege zorrotzagoak egitea (% 47) eta ingurumen-legeria hobeto aplikatzea (% 47). Halaber, neurri horiek aipatzen ziren gehien 2004an EB 25en. EAEko biztanle gehienek (% 54) gehiago jakin nahiko lukete ingurumenaren arloko erabakiei buruz ingurumen-arazoei buruz baino. 2004an antzeko iritzia zuten Luxenburgo, Alemania eta Herbehereetako biztanleek ere.

12. **EAEko BIZTANLEAK, BATEZ ERE, NEURRI HAUEK HARTZEKO PREST EGONGO LIRATEKE, INGURUMENA BABESTEN LAGUNTZEKO: HONDAKINAK SAILKATZEA, ONDOREN BIRZIKLATZEKO (% 78); GARRAIO PUBLIKOA AHALIK GEHIEN ERABILTZEA (% 59); ETA ETXEKO ENERGIA-KONTSUMOA MURRIZTEA (% 52)**

EAEko biztanleak, batez ere, neurri hauek hartzeko prest egongo lirateke, ingurumena babesten laguntzeko: hondakinak sailkatzea, ondoren birziklatzeko (% 78); garraio publikoa ahalik gehien erabiltzea (% 59); eta etxeko energia-kontsumoa murriztea (% 52). Ehunekoak hain altuak izanik, badirudi jendea prest dagoela ingurumenaren aldeko jarrera horiek hartzeko. Hala eta guztiz ere, portaera horiek gehiago barneratu behar dira eta banakako konpromiso handiagoa behar da, jarrera orokorretik portaera praktikora pasatzeko.



IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Urkixo Zumarkalea, 36-6.a (Bizkaia Plaza)
48011 Bilbo
Tel.: 94 423 07 43
Faxa: 94 423 59 00
www.ihobe.net

